

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Mahaia edo menua

OIER IMAZ ALIAS > 3

GASTRONOMIAREN

ANTROPOLOGIA:

Merke eta xuhur JOSU OZAITA > 26

2026ko urtarrilaren 24a | XX. urtea • 963. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik

www.gaur8.info



PRIMI EROSTARBE, PANDEROAREN TAUPADA-KOLPE PROPIOA

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAK «SOINUAREN LIBURUTEGIA» OSATZEN SEGITZEN DU. PRIMI EROSTARBE
ETXEBARRIA (1907-1995) PANDEROJOLE-IRRINTZILARIARI BURUZKO ALEA PARATU BERRI DU APALEAN. > 12

KUTXA FOTOTEKA

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.

Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Somalilandia, Israelek burujabe aitortu duen herrialdea 04

Haitik duela 16 urteko lurrikara gainditu nahian jarraitzen du 08

Primi Erostarbe, gizonezkoen plazan lekua egin zuen panderojole eta irrintzilaria 12

Osasun leihoa: Hurkoaren maitasuna, herriaren osasuna 18

Gisella Gil Buxade: «Azalak isiltzen duguna oihukatzen du» 22

Gastronomiaren antropologia: Merke eta xuhur 26

EvalDepApps, depresioaren tratamendurako aplikazioak ebaluatzeko tresna 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Oier Imaz Alias:** Mahaia edo menua
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Japoniako kaleak
- 11 **Ramon Sola:** Imazi kasu egin: estatus berria ala Etxe Zuria
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 17 **Maiden Iantzi Goienetxe:** Gu, bertzeak
- 17 **Xabier Mikel Errekondo:** Bekatu
- 20 **Leire Lareki Sanchez eta Eneko Mendiluze Plaza:** 2026rako desira, mugiarazten gaituen indarra
- 21 **Ekhiñe Zapiain Arlegi:** Arrisku bat
- 30 **Izaro Goienetxea eta Itsaso Rodriguez:** Adimen artifiziala arrantzan



{ datorrena } Oier IMAZ ALIAS

Mahaia edo menua

Asteazkenean hartu zuen hitza Davosen Donald Trump Ameriketako Estatu Batuetako presidenteak. Arreta handia zen. Denak geunden, “Euronews”-en titulatu zuten moduan, «Trumpen showeren zain». Bere hitzartzean Groenlandian interbentzio militarren aukera baztertu zuen, eta Groenlandia Ipar Amerikan kokatu zuen. Lehenak, azken asteotako sorgin gorpila pausan jarri duela esan daiteke. «Indarra badut, baina ez dut egingo», esan zuen. Eta gehitu ere, «baten batek hasperen egingo zuen oraintxe bertan». Indar erakustaldia. Bigarrenak, berresten du Groenlandia bereganatzeko helburua ez duela haizeak eramango. Finean, Groenlandia Ipar Amerika da, Trumpen munduaren buru-mapan. Edonola, denak hari begira, kontrakoa esan zezakeela sinesgarria baitzen.

«America should be unpredictable», esan omen zuen Trumpek bere bigarren agintaldiaren norabidea adierazteko. Eta horrela egin du. Badira lerroburu handiak. *Make America Great Again*. Eta ekintza ikusgarriak, Venezuelakoa kasu. Orain, ekintza zehatzetatik azken helmugara nola egingo duen bidea ezin jakin. Edo hori da behintzat gertatzen zaiguna bere jardunbidea arrazionalizatzen saiatuz gero, azken mendean nazioarteko harremanak gidatu dituzten paradigmatik abiatuz behintzat. Saiatzen direnek diote bere gogoia enpresa gizonarena dela eta hortik saiatu behar garela bere jardunbidea ulertzen.

Labur, finantzen esparruan ziurgabetasuna aukera bat izan daiteke: asko galdu edo asko irabazi. Eta gakoetako bat hautu egokia egitea omen da, momentu egokian. Horretarako, bistan da, ezinbestekoa da informazio ona izatea. Beste gako bat da azkar erabakitzeari, zalantzarik gabe. Hau da, harturiko erabakiek epe ertain-luzean izan ditzaketen ondorioetan pentsatu gabe. Finean, berdin du etorkizuneko norabidea bata edo bestea izan, asmatuz gero norberaren posizioa hobea izango da-eta osteko agertokian. Ikuspegi horretatik Trumpen estrategia sinplea dela pentsa daiteke. Bazterrak nahasten ditu lehenik. Horretarako indarra badu. Eta bazterrak nahasiak direnean, eraba-

kiak hartzen ditu azkar. Batetik, informazio hobereana berak baitu beti; berak bakarrik daki zer dagoen bere buruan. Bestetik, azkar hartzen ditu erabakiak, zalantzarik gabe, ez baititu aintzat hartzen epe ertain-luzeko ondorioak. Momentu bakoitzean, bere posizioa indartzen badu aurrera, bestela atzera. Eta gero geroakoak.

Horiek horrela, egin beharreko galdera da, nola egin aurre jardunbide horri?

Egun batzuk lehenago hitza hartu zuen Davosen Mark Carney, Kanadako lehen ministroak. Bere hitzartzeak hautsak harrotu zituen.

Lehenik, Trumpen hegemonia lehiatu zuen. «*The system's power comes not from its truth, but from everyone's willingness to perform as if it were true, and its fragility comes from the same source*». Trumpek bazterrak nahasteko indarra du, besteak beste, horrela onartzen diogulako. Onartzeari uztea, hortaz, bada bere hegemonia higatzeko bide posible bat. Baina horretarako onartu beharra daukagu ez dagoela atzera

Trumpek ez ditu aintzat hartzen epe ertain-luzeko ondorioak. Bere posizioa indartzen badu aurrera, bestela atzera

bueltarik. Ez gaude trantsizio momentu batean, haus-tura momentu batean baizik. Eta agertoki berri horretan, «*if we're not at the table, we're on the menu*».

Bigarrenik, Kanadan entseatzen ari diren bide orri berriaren oinarritzko ideia azaldu zuen; «*value-driven realism*». Botere hegemonikoen kontra ezin da buruz buru negoziatu. Subordinazioa onartu gabe behintzat, eta beste subordinatuen kontrako lehia, horrenbestez. Baina ez gaude bakarrik munduan. Erdiko botereei buruz hitz egin zuen eta haien arteko multilateralismoak eskaintzen dituen aukerak nabarmendu. Alta, ohartu zuen, multilateralismoak pragmatikoa eta asimetrikoa izan beharko duela. Oinarritzko printzipioetan oinarritua (giza eskubideak, soberaniaren errespetua, indarraren erabilpen mugatua...), baina onartuz balioak ba-koitzak bereak dituela. Ezinbestean, auziz auzi, bidaidez bidaide eta urratsez urrats. •

{ analisia } Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI

Israelek Somalilandia burujabe eta independentea aitortu du

Bere uztarripean eta kontrolpean duen palestinar herriaren aitortza hainbeste izorratzen duen bitartean, Israelen beste herrien independentzia aitortzearen negozioan sartzea erabaki du. Somalilandia hautatu du horretarako, oraindik ere ofizialki Somaliaren parte izaten jarraitzen duen lurraldea, 1991tik bere autonomia aldarrikatzen eta defendatzen duen entitatea.

Pantomima sezesionista da? Bide okerretatik hartutako erabaki zuzena? Palestina aitortzearen aldeko argudioak indartuko ditu? Gauza bat argi dago: munduaren berreratze geopolitikoan ondorio latzak izango dituen erabakia da.

Iragan abenduaren 26an antzeztutako Israelen aitortpenak mendekutik ere badu. Nazio Batuen Erakundeko estatu gehienak Palestinako Estatuaren hondakinak estatu gisa aitortzen ari direla ikusita, gaiari buelta bat ematea erabaki zuen Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak. Tel Aviven arabera, hori bai, Somalilandia aitortzea ez da «Somaliaren kontrako ekintza» eta «ez du aldean arteko elkarriketa eragozten». Saltzailearena eginez, aitortpena ez dela «desafio ekintza» dio, «aukera» baizik.

Netanyahuk lotsagabe plagiatu du Palestina aitortu duten estatuen hizkera. Abdirhaman Mohamed Abdullahi Somalilandia-ko presidenteari abenduaren 26an egindako telefono deian, «autodeterminazio eskubidearen garrantzia» azpimarratu zuen. Eta Washingtonen dituen lagunak gogoan, Ameriketako Estatu Batuak Somalilandia aitortzera bultzatuko dituela aurreratu zuen.

Asmo zitalak atzean

Israelgo Nazio Segurtasunerako dokumentuetan Somalilandia-
ren balioa azpimarratzen da, «ekintza militarerako eremu operatiboa» eskaintzen duela-
ko. Itsaso Gorrian Israelen aliatu berria da. Zertarako? «Hutien kontrako etorkizuneko kanpai-



na baterako». Ekonomiarekin eta Israelen erreputazioarekin lotutako arrazoiak ere badira tartean; «mineralak eskuratzeko eta eskualdeko populazio musulmanekin harremanak lantzeko» aukera gisa ikusten dute Somalilandia israeldarek. Nonbait, gainera, Somalilandiak laguntzaile serioak ditu Mendebaleko *think tank* eta presio taldeetan. Australian, adibidez, «azken bi hamarkadetan gobernu demokratiko eta baketsua» izan duen lurralde batez hitz egiten dute; are, «hegoalde globalizatuan jarraitu beharreko eredua» dela diote. Alegia, Somalilandia Afrikan beste mugimendu sezesionistak inspiratzeko baliatu nahi dute.

Somalilandiaren aitortzaren kontrako ahotsak, egun bat geroago, abenduaren 27an, entzun ziren 21 herrialde arabiar, islamiko eta afrikarrek egindako adierazpen bateratuan. Israelen erabakiak «Itsaso Gorriko eta Afrikako Adarreko bake eta segurtasunerako ondorio larriak» izango dituela ohartarazi zuten, eta nabarmendu Somalilandiaren aitortzak «Israelen nazioarteko zuzenbidearen mespretxu erabatekoa» erakusten duela.

Israelen erabakiaren atzean asmo zitalak dituen beste zer-bait martxan jartzea egon liteke. Adierazpen bateratu horretan bertan, «herri palestinarra



Ezkerrean, Somalilandiako Dhanaano herrixkan ur eta elikagai eske bertaratutakoak hartzeko kanpamentua. Goian, Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroa telefonoz iragartzen Abdirahman Mohamed Abdulah Somalilandiako presidenteari lurraldearen burujabetzaren aitortza.
Medyan DAIRIEH | EUROPA PRESS
- Israelgo Lehen Ministroaren Bulegoa

bere lurraldetik kanporatzeko ahaleginen aurreko aurkatasun erabatekoa» aipatzen da. Anwar Ibrahim Malaysiako lehen ministroak ere salatu du «palestinarren bortxazko lekualdatzerako Somalilandia erabiltzea onartezina» dela. Kezka ez da oinarri gabea.

Palestinarren zabortegi eta Israelen menpeko estatu bezero izatearen aukeraren aurrean, Somalilandiak ez jakinaren plantak egiten ditu. Salaketok «nazioarteko komunitatea engainatu eta Somalilandiaren aurrerabide diplomatikoa ahultzea» helburu dutela aipatuz.

Minak eta ironiak

Somalilandiaren independentziaren aldeko argudioak aspaldikoak dira. Eta beste herri askorekin gertatzen den beza-

la, badu bere Gernika partikularra, Isaaq komunitatearen genozidioa edo “Hargeysako Holokaustoa”, 1987tik 1989ra bitartean gertatutakoa Mohamed Siyad Barre militar kolpista Somaliako presidentea zela. Militarrek Hargeysan 50.000 eta 100.000 zibil artetan hil zituzten, eta, min hori ez dute, ez dutenez, erraz ahazten Somalilandian.

Isaaq komunitatekoak diren Somalilandiako buruentsat, beren herriaren burujabetasunaren aitortza ez da apustua, beharra da. Ez da diplomazia, biziraupena da. Beraientzat, independentziaren aldeko erabakia ez da erasoa, hautsia eta pitzatua dagoen *statu quo*-a auzitan jartzen duen jokaldi pragmatikoa da, huts egin duten dogmetan amildu den eskualdean argitasun estrategikoa eskaintzen duena. Eta

hartara, Israelek egin bezala, Ameriketako Estatu Batuek eta beste «herrialde arduratsuek» ere babestu beharko luketena.

Baina beste herrietan bezala, Somalilandian ere badira, badirenez, historiaren ironiak eta errepikatzen diren akatsak. Isaaq komunitateak kontrolatzen duen Somalilandiak, Muqdisho Somaliako hiriburuaren aurkako erresistentzia justifikatzeko baliatzen dituen jokabideak erreplikitzen ditu: beste etnia eta komunitate batzuei bere aurka egiteko arrazoiak ematen dizkie.

Isaaq, Dhulbahante, Warsangeli, Gadabuursi eta Ciise komunitateak, Somalilandia Britainiarra izeneko kolonian bizi izan ziren elkarrekin 1884tik 1960ra; sortze beretik bertakoak ziren guztiak, indigenak denak. Baina 1991tik hona, Isaaq komunitateak domina-

tu du boterea Somalilandian, beste klanak baztertuz eta zapalduz. Eta horrek gatazka armatu odoltsuak sortu ditu.

2022an bertan, Dhulbahante komunitateak armak hartu zituen Hargeysako autoritateen aurka, hain justu Isaaq komunitateak Muqdishoko agintari militarren aurka altxatzeko argudiatutako antzeko arrazoiak tarteko. Eta Hargeysaren erantzuna Muqdishokoaren berdintsua izan zen: presio militarra, biolentziaren erabilera deskontrolatua, eta, azkenean, gerra.

Gatazka odoltsuen ondoren, berez Somalilandiakoak ziren Sool and Sanaag eskualdeen sezesioa heldu zen –hurrenez hurren, Dhulbahante eta Warsangeli komunitateen bizilekuak–. Ondorioz, Somaliako Errepublikan autonomia berri bat sortu zen.

Abentura arriskutsua

Somaliar eta afrikar gehienentzat, Somalilandiaren erabakiak logika politikoa, esperientzia historikoa eta oinarritzko irizpide estrategiko guztiak desafiatzen ditu. Ahots horiek ez dute auzitan jartzen Isaaq komunitateak pairatutako sarraskien eta zigor kolektiboen laztasuna, Somalian beste klan eta komunitate askok ere pairatu dituztenak. Sarraskiek matxinoen mugimendu ar-



matuen sorrera ekarri zuten, asko Etiopiak, Somaliaren aurkari historikoak, lagundutakoak. Denen artean, 1991n, Somaliako Estatuaren kolapsoa eragin eta egundaino luzatu den gerra zibila azkartu zuten.

Afrikako ahots horientzat, Somalilandiak Israelen alde erakusten duen tema ez da soilik kaltegarria, desegokia era bada, eta arriskutsuki galarrasten du egonkortasuna. Ez da aurrerapen estrategikoa, kalkulu akats larria da. Afrika odolustu duten akats historikoak errepikatzen ditu, barne zatiketak indartzen ditu, eta somaliar lurraldea kanpoko

Somalilandiako presidente Abdirahman Mohamed Abdullahi, Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahuarekin telefono bidez hitzketan. Israelgo Lehen Ministroaren Bulegoa | EUROPA PRESS

gatazka eta gerren probaleku izateko aukera zabaltzen du.

Hain gerrazalea eta gorrotatua den Israelen aitortzak ez du zilegitasunik kontinentean eta nazioartean. Oraingoz, burujabetzarik gabeko sinbolismoa baino ez du eskaintzen, saririk gabeko arriskua. Eta Somaliak bakea, barne kohesioa, berradiskidetzea, eta, nazioarteko konpromiso eraikitzailea behar dituen honetan, abentura geopolitiko oso arriskutsua da.

Somalilandiaren independentziaren aitortzaren kasuan, Israelen taktika maltzurkeria estrategikoa da. Somalilandiak

30 urte daramatzalako aitortza bila. 1994an bertan, Somaliako lehen ministro ohi eta Somalilandiako presidente izan zen Mohamed Ibrahim Egalek ofizialki eskatu zion aitortza Israeli. Eskaerak ez zuen erantzunik jaso.

Azken hiru hamarkadotan, Israeliek ez du interes txikiena erakutsi Somalilandia babesteko. Eta orain aldatu dena ez da Somalilandiaren zilegitasuna eta heldutasuna, eskualdeko ezegonkortasun geoestrategikoa baizik. Afrikako Adarra eta Itsaso Gorria munduko eremu ezegonkorrenetarikoak dira egun: Gazako genozidioa, gazarren lekualdatze masiboaren eztabaida, Israelen eta hutien arteko gatazka, Bab el-Mandeb itsasartearen gaineko kontrol militarra... Eta hor dago, hain justu, arriskua: Somalilandiako agintariak etekinik ateratzen ez duten kanpo gatazketarako tranpolin bilakatzea. Are, euren lurraldea kontrolatzeko gaitasunik ere ez izatea azkenerako.

Zatikatzea, doktrina

Eta Israel bada orain Somalian (eta lehen Yemenen edo Libian) gauzatzen ari den proiektu sezesionistaren esku ezkutua? Israeliek herrialde arabiar eta islamiarretan muturra sartzea eta paper maltzurra jokatzeko aspaldikoa da,

konfrontazio militar zuzena baino harago doana.

Tel Avivek estrategia zuhurra jarraitzen du, estatuak ahulduz eta gerrak erabat ahi-tutako herrialdeetako indar sezesionistekin aliantzak josiz. Patroia gero eta argiagoa da, Somalian (Somalilandiako independentzia aitortuz), Yemenen (Hegoaldeko sezesionistekin arituz) eta Libian (Khalifa Haftar jeneralarekin kontaktuak landuz). Urteetan luzatu diren gatazkak jasaten dituzte hiru herrialdeek, baita administrazioaren kolapsoa eta kanpo esku hartzea ere.

Eta hiru kasuetan, Israelen jokabidea eta eragina ez da us-tekabekoa, doktrina estratagi-ko baten fruitua baizik: he-rrialde arabiarrek zatitu, itsas nabigazioaren bideak kontro-latu eta bere mesederako eta etekin propioetarako eskual-deko oreka berri bat berrezar-ri. Israelen doktrina estratagi-koa da: suari erregaia bota eta barne gatazkak xaxatu, zerta-rako eta eskualde zatitu ba-tean etekina ateratzeko. Bien bitartean, jakina, eraso milita-rrekin eta lurralde zabalkun-dearekin aurrera jarraitzen du Israellek, izan Palestinan, Liba-non edo Sirian. Herrialde ara-biarrek israeldar politikai aurre egiteko ahalmen gutxiago daukatelako zatituta egonda, eta Israelentzat errazagoa de-lako baldintza oportunistak



Benjamin Netanyahu
Israelgo lehen ministroa,
Somalilandiako
independentziaren aitortza
sinatzen.
Israelgo Lehen Ministroaren
Bulegoa | EUROPA PRESS

okerretan harremanak nor-malizatzea. Tel Aviventzat mu-gimendu sezesionista edo in-dependentistak bultzatzea ez da autodeterminazio eskubi-dea defendatzea, eskualde osoa berriz diseinatzea da; ho-ri bai, parte askoz ere ahulago eta txikiagoetan.

Labanak zorrotz

Somalilandia, bestalde, Egip-toren saihetsetan labankada israeldarra sartzea da. Turkiaren aurrean labana zorroztea. Irani bezala, Afrika guzti-guz-tiari mezua pasatzea. Izan ere, 1991n Somalitik independen-

tzia aldarrikatu zuen lurral-dea, geografikoki nahikoa txikia baina geopolitikoki gar-rantzia itzelekoka da. Israel-darren eta egiptoarren arteko etsaitasunak eta gerrarako gri-nak eta kalkuluak neurtzeko probalekua da Somalilandia, edo israeldarren eta turkia-rren artekoak, edo egiptoarren eta etiopiarren artekoak. Zuzenean borrokaleku bilakatzeko bidean ere egon liteke Somali-landia. Azken batean, eskualde osoaren militarizazioaren atar-ian egon gaitezke.

Gazako gerrak Israelen hel-buruak zeintzuk diren argi erakutsi du. Lehenik eta behin,

Eilateko portua, Itsaso Gorri-
ra duen irteera bakarra, babes-
tea. Yemengo hutien misil eta
drone erasoek erabat blokeatu
baitzuten, galera ekonomiko
latzak eraginez. Horren au-
rrean, Tel Avivek berriz posi-
zionatu nahi du.

Somalilandiak 740 kilome-
troko kosta kontrolatzen du
Adengo golkoaren inguruan,
Berberako portu estratagikoa
tartean, eta horrek Itsaso Go-
rriko Bab al-Mandeb itsasar-
tearen ate bilakatzen du. Tel
Aviv Itsaso Gorriaren kostal-
de horretan errotzeak inteli-
gentziako base militarrek ko-
katzea ekar lezake, Egiptok
Somalian duen eragina mu-
gatzea, Turkiak Afrikako Ada-
rrean duena bezalaxe, bere
aliatu etiopiarra laguntzea Su-
dan eta Egiptorekin dituen ga-
tazketan –Nilo ibaiaren gaine-
ko agintea jokoan jarri du
Etiopiaren “Pizkundearen Ur-
tegi Handia” egitasmoak–.

Israellek epe luzeko bere in-
teres estratagikoak babestea
du xede. Eilat portuarekin
itsas garraio komertziala eta
nazioarteko itsasbideak ziur-
tatzea; hutien mehatxuari au-
rre egitea; Itsaso Gorrian eta
Adengo Golkoan Irani kontra
egitea. Eta Somalilandiak au-
kera itzelak zabaltzen dizkio
bai «Israelen beso luzeari» –ai-
reko indarrei–, bai Somalilan-
dia, Etiopia eta Israel arteko
balizko itsas aliantzari.


Haitiren historia aldatu zuen lurrikararik 16 urte pasa dira. Kari-beko herrialdean mugimendu sismiko indartsuak ohikoak badira ere, 2010eko urtarrilaren 12koak sortutako hondamenak 300.000 pertsona hil eta beste bi milioi pertsona etxerik gabe utzi zituen.

Lurrikararen 16. urteurrenaren egunean, Miamin bizi diren haitiarrek hondamena gogoratu zuten, krisialdi latza bizi duen herrialdera itzultzeko beldurrez. Izan ere, Ameriketako Estatu Batuek (AEB) Aldi Baterako Babes Estatusa eman zien haitiarrei, baina Donald Trump presidenteak otsailaren 3an ezabatuko du.

Miamiko Haiti Txikian bildu ziren urtarrilaren 12an buruzagi politikoak eta migratzaileak. Bertan, minutu bateko isilunea egin zuten, eta 500.000 haitiarrek bizi duten arriskuari buruzko ohartarazpena egiteko ere baliatu zuten aukera. Izan ere, hori da Aldi Baterako Babes Estatusik gabe geratuko diren haitiarren kopurua; indarkeriak astindutako herrialde batera deportatuak izateko arriskuan geratuko dira guztiak.

Miami-Dade konderriko zinegotzi Marleine Bastienek adierazi zuenez, «Haitiko azpiegitura suntsitu zuen Richter eskalako 7 graduko lurrikararik 16 urtera, gauzak hobetu direla esatea pozgarria litzateke, baina badakigu, txostenetan oinarrituta, Haiti 2010ean baino hamar aldiz okerrago dagoela».

2010eko urtarrilaren 12an 1,3 milioi haitiar etxerik gabe utzi zituen lurrikararen ondoren, krisia larriagotu egin da Haitin. Ez dago herritarrek hautaturiko agintaririk, eta taldeen



ETENIK GABEKO KAOSA

Dagoeneko 16 urte bete dira lurrikarak Haitira hondamena ekarri zuenetik

📁 JENDARTEA / GAUR8

300.000 pertsona baino gehiago hil eta beste bi milioi etxerik gabe geratu ziren duela 16 urte, Haitin. 2010eko urtarrilaren 12an, segundo gutxi batzuk iraun zituen lurrikara batek agerian utzi zuen uhartearen pobrezia. Epi-zentroa Leoganen izan zuen, Mendebaldeko departamentuan, Port-au-Prince hiriburutik 25 kilometrora.

indarkeriak etenik gabe egin du gora 2021eko Jovenel Moïse presidentearen aurkako magnizidioaren ondoren.

Herrialdean kaosa da nagusi: bi milioi haitiar baino gehiago «indarkeriak eragindako barne desplazatuak» dira, hiriburua- ren %90 talde armatuen kontrolpean dago eta 5.000 pertsona baino gehiago hil ziren

iaz indarkeriaren ondorioz, Haitin jaiotako Bastienek Miamiko ekitaldian azaldu zuenez. Herrialdearen egoerari buruzko Nazio Batuen Erakundearen azken txostenean jasotako datuak dira.

Bada, Haitin nagusi den indarkeria testuingurua aintzat hartuta, politikariek eta aktibistek komunitate haitiarraren

beldurra nabarmendu zuten Miamiko Haiti Txikian eginda-ko ekitaldian. Ez da harritzekoa, esan bezala, Donald Trump AEBko presidenteak otsailaren 3tik aurrera haitiarrei babes estatusa kentzeko erabakia hartu duelako. «Herrialdea orain 16 urte baino egoera okerragoan dago. Beraz, babes estatusa lurrikararen ondorioz eman bazen eta orain herrialdea egoera okerragoan badago, nola deportatu-ko ditugu bizitza hemen egin duten pertsonak bizia gal dezaketen leku batera?», gaineratu zuen Bastienek. Zinegotziak nabarmendu zuenez, babes estatusaren onuradunek 5.000 milioi dolar baino gehiago ordaintzen dituzte zergetan Floridan. Hori bai, azpimarratu zuenez, «haitiarrei babesa eskaintzea ez da kontu politiko hutsa, auzi humanitarioa ere bada. Bizitzak daude jokoan».

ERAGINA FLORIDAN

Migrazio Politiken Institutua- ren (MPI) arabera, Aldi Baterako Babes Estatusaren amaierak Floridan izango du eragina bereziki, AEBko diaspora haitiar handiena duen estatua baita. Barne Segurtasun Departamentuak (DHS) justifikatu duenez, haitiarrei AEBn jarraitzeko baimena ematea «herrialdeko interes nazionalen aurkakoa» da.

Haiti Txikiko ekitaldian, Trumpen Administrazioak haitiarrak argudio horrekin deportatu nahi izatea salatu zuen Miami-Dade konderriko alkate Daniella Levine Cavaak, eta gogoratu zuen AEBk Haititik irte- teko eta bertara ez bidaiatzeko eskatu diela estatubatuarrei segurtasuna arrazoiak tarteko. «Bitartean babes estatusa bertan behera utzi eta etxera bidaltzeko eskatzen diegu haitia-

Haitiko Port-au-Prince hiriburua, gaur egun.
Patrice NOEL | EUROPA PRESS

rei? Zein etxe? Ankerra da. Egunez egun, gainera, egoerak okerrera egiten du Haitin», ohartarazi zuen Levine Cavak.

Indarkeriaren eraginez, 1,4 milioi pertsonak baino gehiagok etxetik alde egin zuten iaz Haitin, herrialdean inoiz erregistratu den kopururik handiena. Ez hori bakarrik, nazioarteko erakundeek arabera, biztanleen erdiek, sei milioi pertsona inguruk -3,3 milioi haur barne-, laguntza humanitarioa behar dute.

Miamiko alkateak, Eileen Higgins demokratik, Haitin «egonkortasuna, segurtasuna eta oparotasuna egon arte» Aldi Baterako Babes Estatusa mantentzea eskatu zuen Haiti Txikiko ekitaldian. «Miami aukeratu dute aurrera egiteko eta etxeak, familiak eta negozioak eraikitzeak. Gu garenaren parte dira jada haitiarrak. Datozen asteetan, Aldi Baterako Babes Estatusa ezabatzeak gure bihotzak hautsiko ditu», adierazi zuen.

MEXIKON, BESTE 15.000 HAITIARR

Lurrikararen ondorengo haitiarren migrazio mugimendua Mexikora ere iritsi zen. Viviane Petit-Frere haitiarra Tijuanan bizi da eta Haitiko Komunitate Institutuko presidenteordea da. Lurrikararen 16. urteurrenean gogorarazi zuenez, 2010eko tragediaren osteko Mexikoko migrazioa bizirauteko estrategia hutsa izan zen. «AEBra sartzeko asmoz heldu ginen, baina muga ixteko eta irekitzeko politiken ondorioz, komunitatearen zati handi bat Tijuanan geratu zen finkatuta azkenean», azaldu zuen.

2016 eta 2017 artean, Tijuana bihurtu zen haitiarren kokaleku nagusietako bat. Datu ofizialen eta erakunde zibilen arabera, 10.000-15.000 haitiar bizi

dira egun Kalifornia Beherean. Horietako askok Mexikon jaio-tako seme-alabak dituzte.

Petit-Frerek adierazi zuen azken hamar urteotan itxaropena eta erresistentzia izan direla nagusi, baina baita zailtasun handiak ere, batez ere migratzaileen erregularizazioarekin lotuta. Azaldu zuenez, familia elkartzeko aukera ukatu zaien haitiarrak edo Mexikon jaio-tako seme-alabarik ez dutenak, prozesu luze eta konplexuei aurre egin behar diete agintarien aurrean. «Mexikoko Migrazio Institutuak (INM) ez du erraztasunik ematen, eta Errefuxiatuei Laguntzeko Mexikoko Batzordearekin (Comar) egin beharreko izapidetza galdu egiten dira, urtebete irauten dute, migratzaileak astero edo hilero aurkeztera behartzen dituzte...», azaldu zuen.

Dokumenturik ez izateak, ohartarazi zuenez, eragin zuze-

Aldi Baterako Babes Estatusa eman zien AEBk haitiarrei 2010eko lurrikaren ostean, baina Trump presidenteak otsailaren 3an ezabatuko du. Miloi erdi haitiar daude deportazio arriskuan

«Nola deportatuko ditugu bizitza hemen egin duten pertsonak bizia gal dezaketen leku batera?», nabarmendu du Marleine Bastien Miami-Dade konderriko zinegotzi haitiarrak


na du haitiar migratzaileen eguneroko bizitzan: enplegu formalerako sarbidea ukatzen zaie, gizarte segurantzaren eta arreta medikoa mugatu, eta lan-gehiegikerien eta giza eskubideen urraketen eraginpean jartzen du komunitatea. «Dena lotuta dago: dokumentazioak enpleguari, osasunari, gizarteratzeari eta duintasunari eragiten die», laburbildu zuen.

Claudia Portela, A.C. proiektu salestarraren administratzaile

lea, bat etorri zen lurrikararen 16. urteurrenean Arrazoi Humanitarioengatik Bisitari Txartela lortzeko ezintasuna dela oztopo nagusietako bat. «Zerga Administrazioako Zerbitzuak (LTZ) txartela eskatzen du Zergadunen Erregistro Federala (RFC) izapidetzeko. Horrenbestez, txartelik gabe ez dago lan formalik. Babes eskatzaile gehienek, bereziki haitiarrak, lan informalean amaitzen dute, euren egoera erregularizatu zain jarraitzen duten bitartean», nabarmendu zuen.

«Batzuentzat, AEBra heltzeko ametsa desagertu egin da. Dagoeneko ez dute Mexikotik joan nahi. Beste batzuek, berriz, muga gurutzatu beharra dute, gurasoak, seme-alabak, bikotekideak... dituzte AEBn. Mexikon ez dute aukerarik, herrialdeak ez du jakin lan indar hori aprobetxatzen», deitoratu zuen Petit-Frerek.

Haitiko Jauregi Nazionala, Port-au-Prince hiriburuan, 2010eko lurrikararen ondoren.
Logan ABASSI | W. COMMONS





Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Japoniako kaleak

Japonia bisitatzeko aukera izan baduzu, edo japoniar zinema ikusteko aukera izan baduzu, baliteke bertako hiriekin duten itxura desberdinak begira jo izana. Kaleak estuak dira eta desorden handia dute gure kaleekin konparatuz gero. Hiriko zutabe kableatua eta elektrizitate instalazioa bistan egotea antzinako hegoaldeko kaleetan gertatzen zen, baina gaur egun edozein kale berrikuntzan eskatzen den gauzetako bat da begien bistatik kentzea eta lurperatzea. Kableatua bistara jartzeko arrazoiaren erantzuna, hiriaren plangintzan topatuko dugu.

Japoniako hirien ehundura partzela txikiz osatua dago eta eraikinek orube estuetan altuera hartzen dute. Zatikatzeari gaineratu behar zaio partzelen arteko kale ehundura ere oso estua dela, 7 metrokoa askotan. Horregatik, japoniarrak ohituta daude kaleak elkarbizitzako kale izatera. Trafiko txikiko kaleak izanik, autoak astiro igarotzen dira eta oinezkoek alboetara jotzen dute auto bat datorrenean.

Partzelazio zatikatu horrek erantzuten dio Japonian eraikinak eraisteko duten ohitura handiari. 25 urte igarotzean eraikina bota eta berria egiten dute, eta, lan horretan, kableatua bistan izateak instalazioa erraz egiten laguntzen du. Ze Japoniako kaleetako beste ezaugarri deigarri bat eraikin-tipologia oparoa da. Eraikin bakar eta berdin bateko solairuetan, ohikoa da elkarrekin nahasirik topatzea etxeak, bulegoak, ile apaindegia, taberna txiki bat, ogia egiteko industria txiki bat. Eraikin bakoitza mikro-hiri bat da. Kalea osatzen duten eraikinen erabilera ez da beheko oinaren eta goiko solairuen artean banatzen. Eta atzetik

dagoen arrazoia, partzelazioaz gain, arautegia da.

Japoniako hiriak antolatzeke erabiltzen den arautegiak posible egiten du etxebizitza erabilera nagusiko eraikinetan etxebizitzarekin batera garriak diren erabilerak nahastea; aktibitate ekonomiko bat txertatzeko gutxieneko azalera txikia da, etxebizitza eraikinetako solairuak okupatu ahal izateko aukera eskainiz. Araudia egiteko modu horrek, erabilera-nahasia bultzatzeko filosofiaz aparte, zona baten erabilera beharrak eguneroak zehaztu behar duela du oinarri. Arautegiaren malgutasunarekin administrazioaren kontrol-eremua arintzen da, errealitateak ekartzen dituen beritasunek eta aurreikusitako gabeko egoerek lekua izan dezaten. Hiri-plangintzan kontrola gutxitzeko, konfian-

tza eman behar zaie herritarrei eta herritarren eskutik antolaketa eta kudeaketa propio bat sortu daitekeela sinetsi. Araudi malgu batek herritarren arteko gatazka eta kexa gehiago ekartzea posible da, baina baita gatazkak eta kexak herritarrek eurek kudeatzeko eta ebazteko aukera ere. Esan liteke, arautegi-malgu batek herritar eta administrazio helduak eskatzen dituela.

Japoniako kaleek bizitasun handia dute aipatutako arrazoiaren ondorioz. Ez dago kale mota bakar bat definitzeko modurik. Ederra da oso kale-ehundura oparoan eta askotariko eraikinen segidan galtzea. Eta zenbat deskubrimendu lokalen eta espazioen txikitasunetan, eraikinaren eta kalearen gertutasun domestikoan! Bizitzaren mugimendua jasotzen duten testuinguruak dira.



Japoniako kaleetan, eraikin bakoitza mikro-hiri bat da. Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

Imazi kasu egin: estatus berria ala Etxe Zuria

2004ko abenduaren 30ean gertatu zen eta niri behintzat ez zait ahaztu. Orriotan jada kontatua dut ziur aski. Ibarretxe Planari buruzko bozketa egitekoa zen Gasteizko Legebiltzarrean. Horrekin zirt edo zart egingo zuen estatus berri baterako lehen-dakariaren egitasmoak: Espainiako Gorteetara eraman-go zuen Ibarretxek, Estatuarekiko talka politikoa ikusaraziz, edo bere bidea amaituko zuen, kito.

Ezker abertzalearen esku zegoen erabakia. Garai hartako giro liskartsuan, Ibarretxe Planari ezetza emango ziola uste zuten gehien-gehienek. Kazetari gutxi batzuei minutu batzuk lehenago jakinarazi ziguten kontrakoa gertatuko zela: taldearen botoak banatuz (hiru baiezko, hiru ezezko) egitasmoari argi berdea emango zitzaiola, alegia. Arnaldo Otegik oholtzatik iragarri zuenean, batzuen eta besteen erreakzioei erreparatzeko tarte izan genuen, horri esker. Eta guztien artetik EAJko presidentek Josu Jon Imazena nabarmendu zen. Estatuarekiko talka politikoak aurrera egingo zuela entzutean, suminduta agertu zen zumaragarra, aurpegia eskuen artean ezkutatuta, burumakur, kezkatuta oso. Ezin garbiago ikusi genuen aurreko harmailatik Otegiren hitzaldiari erreparatu beharrik ez genuen kazetariok.

Pasarte burura etorri zait segituan Imaz Trumpen ondoan ikusi dudanean. Orain burumakur ez, belauniko baizik, baina bietan lotsa izpirik gabe. Deigarria da Etxe Zurian gertaturikoaren ostean EAJren barruan zabalduko isiltasuna. Imazen jarduna aski salagarria da aspalditik, baina orain goia jo duela dirudienean ere ez da autokritikarik. Horrelako pertsona bat bere burua abertzaletzat duen alderdi baten gailurrera nola heldu zen azalduko du norbaitek, alderdi horren mesedetan? Barruan egin dute hausnarketa, akaso. Edo ez dute

kontraesanik antzematen, agian; azken finean, Imazek bakarrik ez, Euzkadi Buru Batzarrean lekukoa hartu zion Iñigo Urkulluk ere garbi aitortu zuen, garrantz ez esateagatik, Ibarretxe Planarekiko zuen urruntasuna.

Historia ziklikoa denez, 90 urte pasata faxismoaren erasoaldiaren pean dago mundua berriz ere, eta 20 urte igarota estatus berri baterako aukera ere zabaldu zaio herri honi. Denbora ez da alferrik pasatzen, ordea. Egungo abagune honek zenbait aldagai ditu alde, ordukoarekin alderatuz: ETA ez dago, ez eragile gisa, ezta aitzakia gisa ere; ia mende erdi bete duen Gernikako Estatutua azkenetan dago; autogobernuaren aldarrikapenak indarra hartu du gainerako euskal lurraldeetan; indar metaketa zabalagoak daude; eta estatus berri baten aldeko egitasmoak ez lituzke egun ezkerreko independentismoaren botoen erdiak batuko, guztiak baizik...

Faxismoaren aurrerakadak burujabetza maila guztiak ditu jopuntuan. Estatusaren alorrean mugarri berria jartzea lagungarria litzateke datorrenari, datorren edozeri, aurre egiteko

Ez bakarrik aukerak, beharrak ere handiagoak dira. Faxismoaren aurrerakadak burujabetza maila guztiak jopuntuan ditu; begien aurrean jartzen digute Venezuelatik Groenlandiara, euskararen aurkako oldarralditik neomatxismoaren erasoaldira. Mugarri berria jartzea lagungarria litzateke datorrenari, datorren edozeri, aurre egiteko; aukera-leihoak zabalik segituz gero, beste aldera pasatzeko; giltzarrapoz itxiz gero, defentsan sendoago aritzeko. Imazek erakutsi du bidea, orduko arratsalde hartan bezala. •

Euskal Herriko Trikitixa Elkartek Soinuaren Liburutegia bildumaosatzen jarraitzen du. 18. zenbakia paratu du apalean, Primi Erostarbe Etxebarriari buruzkoa (Oñatiko Araotz, 1907–Donostia, 1995). Itziar Ugarte Irizar (Oñati, 1995) kazetari eta idazlearen egitekoa izan da Primiren berri jaso eta, txatalak josiz, bere biografia atontzea.

Plaza publikoa erabat gizonek okupatzen zuten garaian, lehen emakume trikitilarietako izan zen Primi Erostarbe. Panderojolea eta irrintzilaria zen. Garaiko irrintzi txapelketetan aise nagusitu ohi zen, irrintzi egin bitartean hitzak sartzen zituen eta horrek entzuleak pizten zituen. «Haren jarrera biziak eta deliberatuak ere egin zuen ezagun. Baita umore-senak ere», nabarmendu dute Euskal Herriko Trikitixa Elkartetik.

1907an sortu zen Oñatiko Araotz auzoan, eta inguruko koplari tradizioetik edan zuen zuzen. Bi munduren arteko zubi bezala irudikatu daiteke Erostarbe; berez zekarren Araozko mundu zahar hura eta 1970eko hamarkadan Donostian suspertutako kultur mundua bere barruan bizi izan zituelako. Izan ere, Donostian eman zuen Primi Erostarbek bizitzaren parte handiena.

Panderojolea hil zen urte berean jaio zen Itziar Ugarte, haren biografia osatu duena. Oñatiko Araotz auzora sortu zen Primi eta Oñatin jaio zen Itziar. Distantzian gertu, jaiozanean topatu zuten mundu klasean, oso urrun. Hain juxtu, Erostarberen bizitzaren errepasoa egiterakoan Ugarte saiatu da panderojolea zein mundutara sortu zen uler-

SOINUAREN LIBURUTEGIA

Primi Erostarbe, panderojole-irrintzilari aparta gizonezkoek okupatutako plazan

📁 **KULTURA /** Amagoia MUJKA TELLERIA

Primi Erostarbe Etxebarriaren (1907-1995) biografia plazaratu du Euskal Herriko Trikitixa Elkartek. Itziar Ugarte idazle eta kazetariak josi du panderojole eta irrintzilariaren ibilbidea. Oñatiko Araotzen sortua, Donostian bizi izan zen. Benetakotasuna eta talentua berezkoak zituen.



Irudian, Primi Erostarbe Etxebarria. Bere jendetasuna eta alaitasuna nabarmentzen dute ezagutu zutenek.
FAMILIAKO ARTXIBOA

tzen. Hor kokatu du biografia-
ren lehen kapitulua.

HAURTZAROKO MUNDUA

«1907. urtea. XX. mendea berri-berria da artean. Oraindik inork ez daki ez duela bere bu-
rua ezagutuko amaierara iris-

ten denean», jaso du Ugartek biografian. Primi Erostarberen umetako eta gaztaroko Araotz, apenas aldatu zen 500 urtean. Aldiz, 50 urtean sekulako buelta eman zuen.

Primi Erostarberen haurtzaroko munduan, eskolara joa-

ten zen etxean bestelako lanik ez zegoen egunetan. Taberna zeukaten gurasoek Zumalde baserrian eta 10 urte zituela astoarekin bidaltzen zuten tabernarako ardo bila. Neskatoa eta astoa mendian barna, sei ordu-
tik gorako oinezko joan-eto-

rrian. Primi, astoa eta bere itzala. «Astoak badaki bidea eta zuk jarraitu hari», esaten omen zieten astoa lagun mendi bideetatik bidaltzen zituzten haurrei garai hartan.

Joan-etorri horietan panderoa astinduz, kantuan eta irrintzika irudikatu behar da Primi Erostarbe, gerora berak kontatutakotik suma daitekeen. Artean oinekin lurra ukitzen ez zuela, umetan Zumalde tabernan aulkian eserita panderoa astinduz irudikatu behar da. Gurasoek soinua eta panderoa jotzen zuten tabernan. Tradizio horretatik zetorren panderojolea eta bizitza osoan presente izan zituen sustrai horiek.

Arantzazu eta Araotz ingurua panderojoleen sehaska izan dela esateko modua dago Luis Villasante frantziskotarraren lana kontuan hartuta. 1966. urtetik aurrera, inguru horretako panderojoleen atzetik ibili zen Villasante, haiei jasotako koplak bildu nahian. Denera, sei panderojole-koplaren lekukotza gorde zuen: Maria Barrena, Maria Ugarte, Claudio Zurutuza, Aniceta Barrena, Timotea Guridi eta Primi Erostarbe.

Gaztaroa eta bizitzaren parte handiena Donostian eman zituen Erostarbek, 1925. urtetik 1995. urtean pausatu zen arte. Baina jarraitu zuen Araotzera joaten auzoko jaietan panderoa jotzera. Benito Barrena araoztarra Primi Erostarbe

baino 30 urte gazteagoa da. Gogoan dauka Erostarbe Araozko jaietan panderoa jotzen. «Ordurako jendeak bazekien Primik kategoria bat bazuela, nik ere entzunda neukan, baina, ikustea tokatu zitzaidanean, esan nuen neure artean: 'Hau baduk norbait!'».

Nieves Agirre araoztarrak ere gogoan dauka Erostarbe, bere umetako sukaldean, panderoa astintzen. «Airosoa zen oso. Panderoa jotzen hasten zen eta ene! Ze guk ere panderoa eduki bageneukan, baina gure aldean hark beste aire batzuk ematen zizkion. Eta irrintzi hori, ai ama!, barruraino sartzen zen», kontatu dio Ugarteri liburuan.

Eta bada Nieves Agirreren kontaketan beste aipamen esanguratsu bat: «Hark denerako balio zuen. Karakterra zuen. Gerokoagoa izan balitz, feminista-edo izango zen. Andreekin ala gizonekin egon, zazpirekin edo hogeirekin, zergatik ez zuen, ba, egingo. Burua jaso eta aurrera jotzen zuen hark. Eta gero, berean balio zuena ere seguru».

Arrasto ederra utzi du Primi Erostarbek Araotz eta inguruetan ezagutu zutenen artean. Hori jaso du Itziar Ugartek.

DONOSTIAN BIZITZA IA OSOA

Donostian eman zuen bere bizitzaren parte handiena, 1925-1995 bitartean. 18 urte zituela iritsi zen Donostiara neskame –aurretik beste toki batzuetan aritu zen lan horretan–. Kutxa batean eraman omen zituen panderoak. Eta segidan, etxe hartatik Martuteneko Estanco tabernara aldatu zen lanera. Lana, lana eta lana. Horrela laburbildu daiteke Martuteneko garaia. «Nik bizitzen han ikasi nuen; beste gauza asko ez nuen egin, baina bizitzen ikasi

egin nuen», esaten omen zuen Erostarbek garai hari buruz. Martutenen ezagutu zuen gerora senar izan zuena, Jose Azkue, Agerre baserrikoa.

«Alabek ez dakite asko garai horri buruz, 18 eta 28 urte bitarteko tarte hori Martutenen. Segur aski bakardade handiko urteak izan ziren eta lan asko egin behar izan zuen», esan du Ugartek. Lana izan zen, zalan-tzarik gabe, Erostarberen bizitzaren ardatzetako bat.

Itziar Ugartek biografia osatzeko egin duen bilketa lanean dezente aipatzen da Primi Erostarberen izaera indartsua, aurrera egiteko zeukan grina. «Emakume adoretzu eta kementsu bat irudikatzen dut, bizi indar handikoa. Baina, auskalo. Erreparoa ematen dit norbaiten bizitzaren erreparoa egitea. Jendetasun eta umore handiko emakumea zela kontatu didate, baina agian ez zen hori bakarrik izan. Auskalo zer gehiago ez ote izan izan Primi Erostarbe. Gauza asko gara aldi berean denok. Sentsazio hori geratu zait, zer heldu garen harrapatzera Primiren inguruan eta zer ez», esan du zuhurtziaz Ugartek.

Izan ere, Primi Erostarberen bizitzan dena ez zen izan pandero eta irrintzi. Seme-alabek kontatzen dutenez, ama pozik zegoen bizitzaren amaieran, aurrera egiten asmatu zuelako, baina pentsatzekoa da une ilunak ere izan zirela.

1935. urtean ezkondu zen Jose Azkuerekin Agerre baserri-
ra. Gerra urteak eta ondorengo gerraostea bertan eman zituen. Sasoi gogorra.

Agerre baserrian merendero moduko bat zuten, asteburuetan musikaz eta jendez betetzen zena. «Merenderoko eta baserriko lanen artean hazi zituzten umeak», jaso du libu-

«Hark denerako balio zuen. Karakterra zuen. Gerokoagoa izan balitz, feminista-edo izango zen. Andreekin ala gizonekin egon, zazpirekin edo hogeirekin, zergatik ez zuen, ba, egingo»

«Ijito pila bat bizi zen hemen (Amara Zaharra). Extremaduratik, Andaluziatik eta beste leku batzuetatik etorritako migrazio handia ere bazegoen. Amari 'la vasca' deitzen zioten»

ruan Ugartek. Bost seme-alaba izan zituzten Primik eta Josek. Zaharrena den Alaznek gogoan du amona Donata –euskarakaz bakarrik hitz egiten zuena–, etxeko ispilu baten aurrean bere buruari gaztelaniaz hitz eginarazten. Primik ere antzeko erronka zeukan bere buruarekin gazteleraz hitz egiteko. Garai hartako Donostian, gaztelania jakitea bizirauteko kontua zen ia. «Primik ere ikasi nahi zuen gaztelania... Hura gabe, merkatuan edo nonbait panderoa jotzeko deitzen ziotenean, ziria

Beheko irudian, Primi Erostarbe panderoarekin eta Zialtzeta trikitilariarekin, Munichen. Goizaldi taldearekin egin zuten bidaia hori. GOIZALDI TALDEA

sar ziezaioketen, eta hori ez zen huskeria sasoi hartan. Ikaragarritzko miseria zegoen, eta gaztelaniaz jakin gabe, erraza zen galtzen ateratzea», gogoratu dute alabek.

LOIOLA ETA AMARA ZAHARRA

Agerretik Loiolara lekualdatu zen familia osoa 1942. urtean, herentzia kontuak tarteko. Garai hartan egin zuen salto plazara panderojoleak; 1945ean, Pasaian, Balentin Aldalur *Zialtzeta* trikitilariarekin.

Loiolako etxearen pare-parean zuten Espainiako soldadu militarren kuartela. Primik soldaduen arropak garbitzen zituen etxera diru pixka bat ekartzeko. Igandeetan Txomiñenean trikitia egoten zen eta beti joaten zen familia osoa. Loiolan bazen beste gune bat dantzarako, Bar Americano deiturikoa, lorategi handi batekin, eta han bai aritu izan zen Erostarbe panderoarekin.

1950eko hamarkadaren bezperatan, Amara Zaharrera joan



zen bizitzera familia, laugarren etxea Donostian. Inguru pobrea zen orduan. «Ijito pila bat bizi zen hemen. Extremaduratik, Andaluziatik eta beste leku batzuetatik etorritako migrazio handia ere bazegoen. Amari ‘la vasca’ deitzen zioten, salbuespen bat izango bagina bezala», gogoratzen dute ondorengoek. Jose Azkue lorezain lanetan hasi zen sasoi hartan.

Garai hartan hasi zitzaizkion Primi Erostarberi plazak ugartziz. Panderoa hango eta hemengo festetan jotzea etxera diru apur bat ekartzeko modua zen. Panderojole eta irrintzilariaren sasoirik oparoena 1950-1980 urte bitartean izan zen, Primik 43-73 urte bitartean zituela. Alegia, Erostarbe ez zen gazte-gaztea plazan martxa handiena izan zuen garaian; dagoeneko adin bat zeukan emakume bat zen erabat gizonezkoena zen trikitiaren plazan. «Trikitiaren goranzko aroa etorri zenean, Primi dagoeneko eskarmen-tua zuen emakumea zen, plazan maila handia erakutsia zuena; denek nahi zuten Primirekin aritu», nabarmendu du Ugartek.

Balentin Aldalur *Zialtzeta* trikitilariarekin aritu zen batez ere Primi Erostarbe. 24 urte eman zituzten elkarrekin jotzen eta bazuten elkarrekiko leialtasun bat. Baina, horrez gain, garaikide izan zituen soinu-jole esanguratsu gehienekin aritu zen: Errota, Auntxa, Bitarte, Arbe, Sakabi, Egañazpi, Tapia, Laja, Iturbide eta Balda.

Primi Erostarberen beraren hitzetan jaso geratu da nola ibiltzen zen plazaz plaza. «Nik nahiko zorte izan dut; Jesus Maria! Zenbat lekutan egon naizen Jaungoikoak ez daki. Nire garaian lan asko izaten zen panderoa jotzekoa. Egunean hi-

ru aldiz ere jotakoa naiz; lehen-bizi goizean Logroñora, arratsaldean Zestoara eta arratseko hamarretan, *18 de julio*, Donostiara... Behatzak lehertu arte ere bai inoiz, azala mehe-mehe jarri eta odoletan hasi arte».

JOSEREN LIBRETA BELTZA

Amara Zaharreko etxean, Primiren eta Joseren seme-alabek gordeta dauzkate karpeta beltz batean amaren ibileren oihartzunak. Egunkari mozketak eta urrea balio duen altxorra: Primiren urte horietako emanaldien zerrenda jasotzen duen libreta beltza. Bere senar Jose Azkuek egiten zuen idazkari lan hori. “*Actuaciones de la señora Primi Erostarbe*” jartzen du libretaren azalean, senarrak panderojole eta irrintzilariaren jardunari ematen zion garrantziaren seinale. «Aitak emanaldi guzti-guztietara laguntzen zion; panderoa ere hark eramaten zion beti», gogoratzen dute seme-alabek.

«Alabek kontatu didatenez, aita zaletua zen eta errespetu eta miresmen handiarekin jarraitzen zuen amaren lana. Libreta beltza da horren adibide. Leku denetara joaten zen Primirekin, baita bidaietara ere. Eta Primi ere beti arduratzen zen senarrarentzat tokia gordezaten. Aldi berean, Jose Azkue ez zen trikiti mundukoa eta hori bada ezohikoa plaza publikoan ibili diren emakumeen kasuan. Normalean trikitilaria neba edo senarra izaten zen. Oso izaera desberdinekoak omen ziren Jose eta Primi. Alabek esaten dute aita oso lasaia eta isila zela eta ama, berriz, oso bizia». Pentsatzekoa da senarrak bere musikari ibilbidea babestu eta lagundu izanak bidea samurtu ziola Primiri, baina berak bakarrik ere bazuen nahikoa indar. «Ez dut

Goiko irudian, Itziar Ugarte Irizar idazle eta kazetaria. Beheko argazkian, Primi eta Elgeta, 1950eko hamarkadan. Gorka RUBIO | FOKU FAMILIAKO ARTXIBOA



uste onespenik behar zuenik. Agian genero onespenaren ikuspuntutik, samurragoa zen Primirentzat senarra berekin joatea toki guztietara. Senarra alboan izanda, akaso ez zuten hainbeste epaituko. Baina eza-gutu zuten denek esaten dute Primi ez zela galtzen, bazekiela bakarrik moldatzen».

Libreta beltz horretan jaso-ta geratu denak informazio asko ematen du plaza kopu-

ruaz eta haien kokapenaz. Adibidez, 1965. urtean 16 emanaldi daude jasoak; 1976. urtean, 80 emanaldi; eta 1982an, 12 plaza (ordurako 75 urte zituen).

Tokiei dagokionez, batez ere Donostia inguruan eta Gipuzkoan barna ibili zen: Intxaurreondo, Amara, Añorga, Usurbil, Oñati, Bergara, Deba, Arrasate, Azpeitia, Soraluze, Astigarraga, Zarautz, Hondarri-

bia, Urnieta, Zumarraga, Lezo, Ormaiztegi, Orio, Erresteria, Beasain, Pasaia, Oiartzun, Ordizia, Amezketak, Lazkao, Zegama eta Irun. Baina Euskal Herrian luze eta zabal ere ibili zen. Libreta beltzean jasoak geratu dira Bilbo, Ondarroa, Iruñea, Donibane Lohizune, Hendaia, Gasteiz, Mungia, Altsasu, Elizondo, Galdakao, Bera, Sara eta Gorliz, besteren artean.

Primi Erostarbek bazituen urteroko hitzordu finkoak ere; urtarrilaren 20an, San Sebastian egunez, Konstituzio plazan; santomasetan leku berean; urtarrilaren 5ean, Erregeen kabalkadan, Donostian; eta urtarrilaren lehen egunean, Erregeen kabalkadan, Usurbilen.

Hain justu Usurbil da gehien azaltzen den herrietako bat libreta horretan. Zazpi urtez se-

Irrintzietan sartzen zituen letrek ere ematen zuten zeresana. «Lizunkeriak» abesten omen zituen, eta garaiko morala zirikatzen abila zen. Lehen irrintzi lehiaketak berak irabazi zituen

Bere senar Jose Azkuek idazkari lana egiten zuen. «Actuaciones de la señora Primi Erostarbe» jartzen duen libreta beltz batean jaso zituen panderojolearen emanaldi guztiak

gidan igandero jo zuten bertan Primik eta Zialtzetak.

Libreta beltzean agertzen dira, era berean, ezkontza bat baino gehiago eta ehorztetxe bat. Eta Victoria Eugenia, Antzoki Zaharrean eta Kursaal en ere astindu zuen panderoa araoztarrak. Euskal Herri- kanpora ere eraman zuen bere artea; Paris, Madril, Logroño, Potes, Santander...

TRIKITI ETA IRRINTZI TXAPELKETAK

1970eko hamarkadan izan zuen Primi Erostarbek urrezko aroa. Hori trikiti munduaren eta euskal kulturaren pizkunde orokor baten barruan kokatu behar da.

1970. urtean bertan jokatu zen Donostiako Trinitate plazan lehendabiziko Trikiti Txapelketa Nagusia. Lehen epaimahai hari erreparatuz gero, bistakoa da ordurako Erostarbek zeukan izena. Lau epaile izan ziren denera: Joxean Artxe, Xabier Lete, Jose Maria Altuna eta Primi Erostarbe.

Bada beste datu bat Erostarberen mailaren berri ematen duena. Donostiako Turismo Ekintzetxeko Rafael Agirre-Francok eta haren laguntzaile Joxe Salaberriak telefono zuzena zuten panderojolearekin. Zerbait behar zutenean, zuzenean deitzen zioten.

1970ean, trikiti txapelketa ez ezik, irrintzi txapelketa ere jokatu zen. Irrintziaren tradizioa umetatik jaso zuen Primi Erostarbek eta ezaguna zen zeukan gaitasuna. «Irrintzia letrarekin egin zezakeen. Irrintzia hasi, hura moztu gabe hitzak sartu eta hasi bezain indartsu bukatzen zuen», nabarmentzen dute ezagutu zutenek. Zaila omen zen garai hartan Primi Erostarberi irabaztea irrintziak botatzen. 1970, 1971 eta 1972 urteetan

berak irabazi zuen Irrintzi Txapelketa.

Irrintzietan sartzen zituen le- trek ere ematen zuten zeresana. “Lizunkeriak” abesten omen zituen, eta garaiko morala zirikatzen abila zen. «‘Zalea nintzen’, ‘eroa izan naiz beti’ eta horrelakoak esaten zituen Primik. Garaiko morala zirikatzea maite zuen; bi gauza esanda, plaza nola aztoratzen zen ikustea. Txanpon gehigarri batzuk irabazteko modua ere bazen. Bertso lizun batzuk kantatuta, diru gehiago ematen zieten. Baina Primik bazuen grazia edo txispa bat, zera bihurri hori», esan du Ugartek.

BETI GIZONEZKOEN ARTEAN

1972an, Usurbilen, omenaldia egin zieten Sakabiri eta Egañazpiri. Modu sinbolikoan, ulertzen da egun horretan jarri zela Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen lehen harria. Bada argazki garrantzitsu bat, egun horretakoa. Trikitilari talde zabala ageri da eta, tartean, bi emakume: 65 urteko Primi Erostarbe eta 14 urteko Mailu Sudupe. Geroztik urterokoa bihurtu zen trikitilarien hitzordua –herri desberdinetan elkartzen ziren– eta beti agertzen da argazkietan Primi gizonezkoen artean. Inguru horretan egin zuen bere musikari ibilbidea.

«Berari egindako elkarrizketetan askotan galdetzen diote horri buruz. Ondo moldatzen da orokorrean, nahiz eta gertaera deserosoren bat ere kontatzen zuen. Baina berak ez dio garrantzirik eman nahi emakume bakarria izate horri. Bera bat gehiago da plazan, jarrera horrekin ateratzen da plazara eta hortik erantzuten die galdera horiei. Nik uste dut ez duela nahi emakume rola eta egokitu zaion tokia

muga bat izatea. Zergatik dago bera beste inor ez dagoe- nean? Ez da galdera erraza erantzuteko. Segur aski, fakto- re askoren uztarketa izan zen; bere talentua eta bere jarrera tartean. Berak ez zeukan atze- ra egiteko asmorik. Bere jarre- ra ‘beti aurrera’ izan zen», iri- tzi dio Ugartek.

Itziar Ugartek berak liburuan jasotzen duenez, «ez dira asko izango 1970eko urteetan pan- deroak Europara eraman zi- tuen trikitilariak». Primi Erostarbe salbuespena da; Suitza, Alemania, Frantzia eta Austria- ko kaleak zeharkatu zituen panderoa astinduz.

Donostiako Goizaldi dantza taldearekin hogeitau urte eman zituen eta euskal dantzak irau- li zituen Argia taldearekin ere aritu zen aurrerago. Eta hori ere datu garrantzitsua da: eus- kal kultura modernizatzen ziharduen mugimendu aban- goardista hartako zutabea zen

Argia. Ez zuten edonor biltzen ingurura eta zer eta Primi Erostarberi deitu zioten, bere talentuaren erakusgarri.

«Argia taldearen inguruan ibili zirenek Primiren beneta- kotasuna nabarmentzen dute, modu ez kontserbadore ba- tean. Gerra aurreko herri musi- kariek dakarten esentzia hori bere presentzia hutsarekin. Ez daude ezer inpostatzen. Bere panderoa jotzeko modu hori, inork erakutsi ez diona, oso es- timatua da pizkunde garai ho- rretan. Bere adinarekin, bere gorputzarekin, bere keinu guz- tiekin dakar benetakotasuna Primik. Esanguratsua da jar- dun handieneko urte horietan dagoeneko bazuela adin bat», nabarmendu du Ugartek.

Primi Erostarbe Etxebarría 1982an erretiratu zen plazatik, 75 urte zituela. Gaurdaino iritsi da bere bizitzaren oihartzuna Euskal Herriko Trikitixa Elkar- teari esker. Eta kasik suma dai-

Primi Erostarbe panderoa jotzen bere omenaldiaren egunean, Zarautzen, 1975eko Trikiti Egunean. Ehte



LUR AZPIKO ABENTURAK

Donald's Euskoburger

ZE MERCOSUR
TA ZE KRISTO!
EUSKAL HERRIKO
OKELA NIREA DA
ETA KITTO!

YANKILANDIAK
ZUEN OKELA BEHAR DU
HANBURGESA ONENAK
EGITEKO!

LOTSAGABE HONENTZAT
EUSKAL HERRIA LEKU
GASTRO-GEOPOLITIKO
GARRANTZITSUA DA!

ETA EZ DU
ORDAINDUKO,
EZTA?



Amaia
BALLESTEROS



Gu, bertzeak

**Maidar IANTZI
GOIENETXE**

Ni ez naiz arrazista; izatera derriortzen naute». «Bertze erritmo bat dute. Gu jo eta ke eta haiek solasean... Ze amorrua! Hala galdetu zidan: joan naiteke? Bai, bai, erantzun nion (zoaz nire begi bistatik!)). «Izan ere, ez da inor salbatzen. Eta kasualitatea: denak arraza berekoak dira!... Asmatuko zenuten zein arrazataz ari ziren. Nor garen gu eta nor diren bertzeak.

Itxarongela batean aditu nituen hitz horiek. Deseroso sentitu nintzen, handik atera nahi nuen; «deitu nazatela lehenbailehen». Denek egiten zuten buruarekin bai-bai, eta nire burua bertze aldera jiratzea izan zen nire adierazteko modua.

Gogoan dut Eskolatxo Feministan aipatu genuena. Arrazismoa lantzea tokatzen zenean beti gertatzen ziren gauzak: istripu txikiren bat, katarroak... eta lau katu agertzen ziren (ginen) egun horietan. Antzerkiaren bidez bertzeen lekuan jarri ginen. Gure taldean honako eszena irudikatu genuen: familia bat bere mailekin muga pasatzera zihoan eta poliziak pertsona bakarrari jartzen zizkion trabak; amari, azal koloreagatik. Horri aitzin egiteko erak asmatu genituen, eta bigarren eszena bat muntatu: taldearen indarrez polizia dagokion lekuan paratu, eta elkarri besotik helduta pasatzen ginen.

Bidez Bide elkartearen hainbat herritarik Gipuzkoara migratu duten emaku-

meen giza eskubideen alde egiten dute. Bertzeak bertze, ikasketen homologazio prozesu luze eta zailetan akonpainatzen dituzte, hemengo sistemak zaintzara bideratzen baititu zuzenean, dakartzaten jakintzez galdetu ere egin gabe, horiek baloratu gabe.

Bidez Bideren tailer batzuetan, poesia dekoloniala landu dute emakume horiek, eta zenbait poema-liburutan argitaratu dute emaitza. Topaketa horietan adierazitako sentimendu-pentsamenduak biltzen dituzte. Poema batek hala dio: «Bertzeak gu gara,/ Aya Yalatik etorriak,/ espoliatutako herrialdeetatik/ oraindik kolonizatuta jarraitzen duten herrialdeetatik». Bertzeak gu gara, eta gu, bertzeak. •

Bekatu

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Atzo arte Jainkoaren, Ama Birjinen edo santuen aurkako hitzezko biraoa iraintzat hartu eta gaztigatu egiten zen: Erdi Aroan, Alfontso X.a Gaztelako erregeak blasfemia egileak 50 latigo-zartada jasotzera zigortzen zituen, lehen aldian; ezpainak burdin gori batez markatzera (Bhizkiaz) bigarreanean; eta mihia moztera hirugarrenean. Korsikan (1571) mihia zulatzen zieten. Bi Sizilietako Erresuman (1860) bi eta bost urte arteko espetxe-zigorra. Inkisizioak Sanbenitox jendaurrean erakustea, kartzela, galerak edo, biraoa heresiarekin lotzen bazuen, sutan hiltzea ezarri zituen.

Gurasoen garaian, aurreko milurtekoan, dena zen bekatu. Jainkoaren legeak, etika eta moral zorrotzek agin-

tzen zuten. Hura zen muga zeharka ezina. Ongia egin ala gaizkia egin, horra dilema.

Zaintza horretan edonor zen salatzaille: apaiza, irakaslea, aguazila, inkisizioa eta, mingarriena, auzotarrak eta senideak.

Beldurrek inguratuta bizitzera kondenatuta zeuden. Beldurra euskaraz hitz egiteari, plazan dantzan arrimatzeari, ukitzeari, muxu emateari, sexuaren plazeretan atzemana izateari, apaizari hitza zuzentzeari, jauntxoiei, obedienciaz itsua hausteari. Beldurra marra gorriari, handik hara dena baitzen bekatu.

Gaurko garaia beste batzuk dira, zailantzarik ez, baina nago uste baino ugariagoak direla inguruan, gazte iza-

nik ere, beren pentsamolde, sexu-frustrazio, banitate eta inbidiatik marra gorri partikularra ezartzen dutenak hurkoak epaitzeko. Horiek egungo apaizak!

Bada, beldurra uxatu eta egin bekatu, hautsi gizarte hertsietako muga oro tinko zanpatuz flamenko dantzariak lez eta bedi takoikada bakoitza energia, alaitasuna eta argia armairu-zahar usaineko etika eta moral ilunetatik ihesi.

Aurreko milurtekora artekoek sobra sufritu zuten, bereziki emakumeek. Bada, Hirugarren Milurtekoan, haien omenez bada ere, ez egin kasu hamar mandamentuei, ez eta zazpi bekatu kapitalei; egin bekatu eta eman eta jaso plazera tonaka lizunkeriatan blai... •

{ osasun leihoa }

A tsotitzak argi dio: «Hurkoaren maitasuna, herriaren osasuna». Beste bi aldaera ere badatozkit burura. Lehena: «Harriarekiko maitasuna, herriaren osasuna?». Eta bigarrena: «Hurkoaren maitasuna, herriaren osasuna?» Baina ez. Osasun determinatzaileak zer diren ez zekien norbaitek bete-betean asmatu zuen: herriaren osasuna areagotu nahi badugu, hurkoaren maitasuna da gakoa (ematea eta jasotzea).

Euskal Autonomia Erkidegoko osasuna eta osasun sistema onak edo erdipurdikoak diren eztabaidatzen ez naiz hasiko, denok onartzen dugulako zer hobetu asko dutela biek ala biek. Desadostasuna hobekuntza egiteko moduan dugunez, azter dezagun modua pausuz pausu. Ditudan datu zehatzak Euskal Autonomia Erkidegokoak direnez, erkidego horretaz arituko naiz. Hausnarketa, dena den, beste herrialdeetara antzera zabal daitekeela baieztatzera ausartuko nintzateke.

Herriaren osasuna harriarekiko maitasuna balitz, errazki txalotuko nituzkeen azken urteotako osasun aurrekontuak. Aurten osasunari esleitutakoa asko edo gutxi den eztabaidan katramilatu gabe, datua argia da: erkidegoko aurrekontu osoarekiko %30,8 da. Aspalitik, 2008tik, esleitutako portzentaje baxuena. Iazko kopuruarekiko, igoera oso xumea da (%1,3). Baina aurrekontuetako arlo ezberdinei begiratzuz gero, errealitatea kezkarriagoa da. Osasun publikoaren alorrari, gure osasuna sustatu eta areagotu behar duen partidari alegia, aurrekontuen %1,2 esleitzen zaio eta adikzioen alorra lantzeko %0,09 esleitzen da. Iazko aurrekontuekiko, gainera, jaitciera dago bi partida horietan. Asistentziak (%98) eramaten du berriz ere aurrekontuaren zatirik handiena.

Hori dagoeneko nahiko adierazgarria ez balitz, 2025-2032 aldirako Azpiegituren eta Osasun Ekipamenduen Programa aurkeztu du Osasun Sailak. Progra-

ma deitu dioten arren, adostasunik gabeko eta harrokeriaz betetako “propagandagrama” besterik ez da. Nork agindu die 2032 arte egongo direla saila zuzentzen? 1.600 milioi euroko inbertsioa iragarri dute egitura berriak eraiki edo daudenak berritzeko, horietako batzuk jada 2023ko edo 2024ko aurrekontuetan azaltzen zirenak. Berriz ere, lehen arretara papurrak, eta, mamia, ospitaleetara.

Ez diot azpiegituretan eta ekipamenduetan inbertitu behar ez denik. Baina, osasunaren sustapenean zein ekimen egingo dituzun iragartzera atera ordez, azpiegituretan eta ekipamenduetan zenbat gastatuko duzun iragarritz gero, mezua argia da ulertu nahi duenarentzat. Lehentasuna harrian eta zementuan dagoela argi geratu zaigu. Are, 2030erako Euskadiko Osasun Plana aztertuz gero ez badira “osasun zentro” edo “azpiegi-




Karlos IBARGUREN OLALDE

Medikuntzan doktorea. Gaixo kritikoaren zaintzan espezialista

Hurkoaren maitasuna, herriaren osasuna

tura” hitzak azaltzen, zergatik ematen zaio eguneroan horrelako garrantzia diru-partida horri? Nolako egokitzapenak egin behar dira osasun zentroetan oraindik ez bada erabaki nola egingo den lan lehen arretan? Medikuei, erizain eta administrariak osatutako taldeak sortuko dira? Bakoitzetik bana ala talde handixeagoak? Horiei eta beste galdera batzuei erantzun gabe, nora iritsi nahi dugun jakin gabe, edozein egokitzapen desegokia izan daiteke.



Imanol Pradales, hauteskunde kanpainan, osasun arloko eraikin berri baten gaineko xehetasunak ematen. Andoni CANELLADA | FOKU

Zergatik adierazi berriro eraikin berri bat eraikiko dela Tolosan, ez badago eskualde horretarako osasun proposamen integralik? Ez al litzateke aukera hobea dagoen eraikina gaur bertan eskuratzea, zerbitzua publiko bihurtzea eta hortik abiatuta Tolosaldeko beharrak aztertzea?

Erantzun agerikoak Gernika-Lumo edo Eibar izan daitezke. Urte mordoa daramatza Gernikako zentroak martxan eta ez ditu bertako biztanleen beharrak asetzen. Hirugarren solairua hutsik dago 2012an ireki zenetik. Dialisia eta beste zerbitzu batzuk eskatu dituzte, baina erantzuna beti da ezezkoa. Plangintza gutxiarekin eta harriarekiko maitasun handiz eraikitako zentroa da Gernikakoa. Eibarko egoera are larriagozat jo daiteke oraindik. Mendaroren gertutasuna tarteko, are garrantzitsuagoa litzateke plangintza egokia. Baina aurrekontuak onartzeko PSOEn botoak beharrezkoak direnean, horrelako perretxikoak azaltzen dira gutxien esperotako lekuan. Laburbilduz, eraikin asko baina profesional gutxi. Osasun plataformek salatzen duten gisa, opor garaiak iritsi orduko zerbitzurik ezin eman. Egoera horretan, ordea, ez dira prentsaren aurrera azaltzen zer eta noiz itxiko den azaltzeko. Herritarrak, bertaratzean, igarri beharko du zerbitzua badagoen ala beste nonbaitera joan behar duen.

LAGUNEN NEGOZIOA

Desberdintasun sozioekonomikoak neurtzen dituen Gini indizeak eremu berdinzaleen artean kokatzen gaituen arren, eta hilkortasun saihegarri datu onak ditugun arren, ezin dugu konformatu eta ezin dugu bertan gozo egon. 2061erako biztanleen herenak 65 urte baino gehiago izango baditu, ezin ditugu etsi-etsian onartu horrek dakartzan kronikotasuna eta pluripatologia. Onarpen horrek osasun-zerbitzu asistentzialen etengabeko hazkuntza lekarke. Hazkuntza hori zenbait enpresa farmazeutiko, ospitale pribatu edo multinazionalentzako mauka izango den arren, herritarrontzat porrota da zentzu guztietan. Aurten-go aurrekontuetan hori aldatzen hasteko aukera bi-

Osasunaren sustapenean zein ekimen egingo dituzun iragartzera atera orde azpiegiturretan eta ekipamenduetan zenbat gastatuko duzun iragarritz gero, mezua argia da ulertu nahi duenarentzat

Bitartean, aseguru pribatuen kopuruak gora egiten jarraitzen duenez eta horrek herriaren osasuna areagotuko ez duenez, arre edo so egin beharra dago. Esaten dena egin edo egiten dena esan. Baina ez gaitzazue inozotzat hartu



Gasteizko Txagorritxuko Ospitalearen ikuspegi orokorra, 2023ko argazki batean. | jaizki FONTANEDA | FOKU

kaina galdu dugu. Osasun publikoa indartuz, osasunaren sustapena bultzatzeko aukera paregabea galdu dugu.

Hurkoaren maitasuna, aldiz, harriaren osasuna balitz, aise ulertuko genuke inguruko lagunei negozioak esleitzea, klientelismoa elikatzea eta zementuaren eta harriaren osasuna herriaren osasunaren aurretik jartzea. Bide batez, eraikin, teknologia edo azpiegiturak inauguratuz boto gehiago lortzen saiatu eta zirkulua bikain itxiko litzateke. Non geratzen den herriaren osasuna? Utikan idealismoak! Herria osasuntsu balego, nola egingo luke negozioa osasun asistentzia ematen duen sistema pribatuak? Eta horiek ere lagunak dira! Hurkoak! Osasun asistentzia kontsumitzera bultzatzen gaituzte, nahiz badakiten ez dela hori herriaren osasuna areagotzeko modurik egokiena. Asistentziak beste osasun determinatzaile askok baino osasun gutxiago dakarkio herritarrari.

Apustua hori balitz, plangintza oro sobran legoke, noski. Alferrik 2030erako Euskadiko Osasun Plana eta alferrik aurrekontuetan partida horiei esleututako euroak. Gasteizen Santiagoko eta

Txagorritxuko ospitaleekin gertatzen ari denak, berresten du apustua dela plangintzarik gabe, iritzi publikoaren olatuen menpe, igeri egitea. Txagorritxuko Ospitalearen berritze lanak amaitu gabe, berritutakoa berriro berritzen hasi behar izan dute. Ospitalea jada txiki geratu da Santiago itxi eta bertako gaixoak Txagorritxura bideratzean! Larrialdiak berriro gainezka. Santiagon itxi berri zuten larrialdi zerbitzua berriro ireki behar izan dute ezinbestean. Oraingoan, ordea, espezialistarik gabe. Ondorioz, gaixoak ambulanzietan gora eta behera dabilta. Ederra marka!

Bitartean, aseguru pribatuen kopuruak gora egiten jarraitzen duenez eta horrek herriaren osasuna areagotuko ez duenez, arre edo so egin beharra dago. Esaten dena egin edo egiten dena esan. Baina ez gaitzazue inozotzat hartu. Norbaitek akaso pentsatuko du aurrekontuen eta agerraldien hegi bakoitzean piztiak eta mamuak ikustea gehiegizkoa dela eta ez dagoela interes ezkuturik. Oxala denborak arrazoia kenduko balit, baina ez du balio denbora joan eta gero negar egiteak.



Leire LAREKI SANCHEZ eta Eneko MENDILUZE PLAZA
Psikopedagogo eta psikologoak



2026rako desira, mugiarazten gaituen indarra

Desira egoera konkretuak eskuratzera, bizitzera edo sentitzera bideratua egon daiteke, baina, zein da desiraren iturburua? Zergatik sentitzen dugu ekintzara bultzatzen gaituen barne indar hori? Badugu hasi berri dugun 2026rako asmo berezirik? Galdera horiek gizakiaren esperientziaren erdigunean daude eta desiraren izaera agerian uzten dute.

Agian pertsona konkretu bat ezagutu, objektu konkretu bat lortu edota egoera konkretu bat bizi nahi dugu. Desira barne-energia iturburu indartsua da eta hizkuntzaren birtate hartzen du forma. Jaioberriak garenean desira ez da hain konkretua. Esate baterako, jaioberriaren desira barne egoera orekatua edo babesa izan daiteke, “beldurra-babesa” polo sinplearen barruan besterik ez. Gero, 8-12 hilabeterekin, amaren gorputza eta bere gorputza ezberdinak direla konturatzean, ama edo babesgunea urruti ez egotea izan daiteke desira nagusia. Poliki-poliki, babesgunea edo ama mentalki integratzean, distantzia geroz eta modu nabarmenagoan ahalbidetzen du txikiak.

Ondoren, hiru urterekin, hizkuntza eta pentsamenduaren arteko loturarekin eta psikearen garapenarekin (nia-ez nia), desira forma ezberdin eta kreatiboagoak garatzen hasten da haurra. Desirak jada ez du soilik objektu zehatz bat biltzen, baizik eta irudimena, jolasa eta sormena ere barne hartzen ditu, haurraren mundua modu nabarmenean zabaltzen lagunduz. Imajinazioa eta proiektzioa mugagabeak dira garai horretan. Irudimena, superheroien pare, borbor dagoen garaia, hain zuzen. Sekulakoa eta ia sinesgaitza da lehenengo hiru urteetan ematen den gaitasun saltoa.

Horrela, desira gizakiaren garapenerako bitarteko oso egokia dela ondoriozta daiteke, desira fisikoa (oreka-mina), emozionala (maitasun-mina), intelektuala (jakin-mina) edota espirituala (zentzu-mina) izan daitekeena. Beraz, desiraren bidez, gizakiak bere burua ezagutzen du eta

munduarekin harremantzen da. Esaerak dioen moduan, “nire desira naiz”.

Bestalde, txanpon beraren bi aurpegiak datoz hemen. Desiraren oinarrian gabezia dagoela ondoriozta daiteke eta gabezia horrek sufrimendu mentalera eraman gaitzake. Desirak, beraz, batetik, deprimitu edo, bestetik, motibatu gaitzake. Jarduera izoztu edo piztu dezake. Blokeatu gaitzake edo irudikatzera, eraikitza edo mugitzera bultzatu. Hau da, laburbilduz, bere eragina ez da inoiz neutrala.

Desirak aurpegi ezberdinak izan ditzakeela argi dago: behar fisikoetatik abiatuta, emozionaletara doan irrika edota intelektualetara doan sorkuntzarako bulkada izatera irits daiteke. Hala ere, desirari buruz sakonago hausnartzen badugu, hainbat tentsio ageri zaizkigu. Desiraren gabeziak

tristurara eramaten bagaitu; desiraren lorpenak, laster etsitu edo atsekabetu gaitzake. Hau da, desiraren eraikuntzaren gurpilaren ibilbidea luzea izan daiteke, oso luzea, eta aldi berean, oso frustragarria.

Eta ez hori bakarrik: agian ondoko lagunek edota gurasoek desiratzen duten zerbait desira propio bilaka dezakegu; desiratuak izan nahi dugu; edota gizartearen kanoenen desiraren barruan, alienazioan, desiratzen dugu. Iragarki ekoizleek ondo dakiten moduan, desira norberarena eta indibiduala dela esatea ez da guztiz egia. Kultura eta

baldintza konkretu batean bizitzeak desiran eragina du eta masai gazte baten desira, Australian bizi den aborigen baten desira, ume palestinar batena edo Euskal Herriko gazte batena oso ezberdinak izan daitezke.

Horrelako egoeratan galdera hauek ezinbestekoak bihurtzen dira: nolakoa da gure desira? Nondik dator mugiarazten gaituen indar hau? Zer eragiten du gugan?

Budaren arabera desira giza sufrimenduaren iturri nagusia da. Baina paradoxa bat dago hemen: desirarik ez izaten saiatzea ere desira bat da. Horrek erakusten du desira beraren indarra eta desira baztertzeko zailtasuna. Agian gakoa ez da desira ezabatzea, baizik eta hura ulertzea. •



Desirak aurpegi ezberdinak izan ditzake. KRANICH17 | PIXABAY

{ koaderno } Ekhiñe ZAPIAIN ARLEGI

Arrisku bat

Gure zaldiak belarriak mugitzen ditu arriskua sumatu orduko. Tente eta gogor jartzen ditu, lehenbizi aitzinerantz, mehatxua nondik datorren aditu nahiko balu bezala. Bizkor eragiten die belarriei, bakoitza alde batera biratuz, ondotik gibelerrantz begira jartzeko. Atzerantz bi belarriak, zabal-zabalik. Txakurrekin ere, erne ibili gorputza zurrin-zurrin jartzen bazaie. Ileak puntan eta buztana zut. Katua konkortu egiten da, sagarroiak arantzak kanporantz itzultzen ditu, eta mofetak kiratsa isurtzen du. Arriskua aditu, ikusi eta usaindu egin daiteke, antza.

Batzuetan zaila da gure begietatik animalien gorputzak irakurtzea. Nik maiz ez dut jakiten zer erran nahi didaten. Zerbait ez doa ongi. Mehatxu bat zara. Lagundu. Erasoko dizut. Baina arriskua hor dagoela antzematen dute, eta zerbait egin nahi dute horren aitzinean. Ez dakit ea gizakiok bagaren gai haien moduan arriskuak aditzeko, ikusteko eta usaintzeko.

Kontuz ibiltzeko erraten ziguten ikastolan. Kontuz jostatzeko minik hartu ez genezan; kontuz jaisteko eskailerak zarata handirik egin gabe; kontuz ibiltzeko erraten genuenarekin, azterketako galderan ipintzen genuen erantzunarekin, bertze ikaskideekin. Nerabezaroan ikasi nuen kontuz ibili behar zela sare sozialetan, parrandetan, kaleetan bakarrik ibiltzean arratsez; kontuz harremanetan, kontuz ispilura begiratzean, kontuz zer ikasi aukeratzean.

Geroztik hamaika aldiz aditu behar izan dut kontuz ibiltzeko, eta nik ere erran izan diot inori sekula. Kontuz, kontuz eta kontuz. Eta egiari zor, batzuetan benetan larritzen naiz. Bakeari biderik egiten ez dioten agintariak ditu munduak; inbasioek, feminizidioak, etxegabetzeak, faxismoak, euskararen aurkako oldarraldiek, ingurugiroari egindako sarraskiek, polizia gehiegikeriek... ez dute etenik. Eta arriskuak ikusten ditut bazter guztietan.

Soziologo alemaniar batek zioen arriskuaren gizartea dela gurea. Arriskuak naturalak izatetik gizakiok sortuak izatera igaro direla aurrerapenaren izenean,

eta are zailagoa dela horrela horien prebentzioa segurtatzea. Mendebaldeko gizakiok sortutako arriskuak dira. Arrisku berriak, ezberdinak, lehendik zeudenei gehitzen zaizkienak. Arrisku zaharretan, «gertatu behar zelako gertatu da» bat zegoen atzean. Ezin zitekeen aurreikusi, ez zegoen saihesterik. Hortaz, arrisku berriak omen dira gehien kezkatu behar gaituztenak, guk sortuak izan arren eskuetatik joaten baitzaizkigu sarri.

Ez dakit arriskuaren gizartean gauden, edo gizartearen arriskuan. Kaltegarria den zerbait gertatzeko probabilitatea hagitz handia da egun (batzuentzat berzteentzat baino gehiago), eta kaltegarria den horrek izugarritzko kaltea eragiten du gainera. Hor daude arriskuak. Kontuz, kontuz, kontuz.

Soziologo alemaniar batek zioen arriskuaren gizartea dela gurea. Arriskuak naturalak izatetik gizakiok sortuak izatera igaro direla aurrerapenaren izenean, eta are zailagoa dela horrela horien prebentzioa segurtatzea

Ume gehienen modura nik ere eduki nuen nire hipokondria garaitxo. Beldurrak eta mamuak agertzen zitzaizkidan etengabe. Eta ez ziren preseski erraz lausitzen ziren horietakoak, gainera.

Ikastolatik buruko min “arraro” bat nuela eta etxera joan nahi nuela errateko deitu zuten etxera behin. Bertze behin izeba etorri zitzaidan bila, eta bidean negarrez nindoala erran zidan ezin dela arriskuei beha bizi. Edozeini erori dakiokela balkoi batetik loreontzi bat kalean paseatzen duen bitartean. Eta buruan jota bertan ziplo erori.

Oraindik ere nire ume beldurtia berpizten den aldiro esaldi hura ekartzen dut burura eta arriskutzen naiz balkoi azpietatik pasatzera tarteka. Arriskuak beti daude hor, eta hartzea ere komeni da batzuetan. •

«Azalak isiltzen duguna oihukatzen du, gure emozioen ahotsa da»

Gisella Gil Buxade Bartzelonakoa da, baina bere bezeroen %80 euskal herritarrak dira eta Donostian aurkeztu zuen “Cosmética emocional” liburua 2025 amaieran. Gero Andorrara joan zen eta solasaldi lasai eta sakona izan genuen han zela, elkarren azalak laztanduz.

«Bilatu gabe etorri zen» kosmetika emozionala bere bizi-tzara. «2016an industria farmazeutikoan lan egiteari utzi nion. Ordurako bi lanak bateratzen nituen: farmaziakoa eta naturopatia kontsulta. Baina enpresa berean kointzidituen mutil-lagunarekin eta bietako batek alde egin behar izan zuen ez zigutelako elkarrekin lan egiten uzten. Hamazazpi urte neramatzan eta laborategi batetik bertzera joan ordez, naturopatia kontsultarekin bakarrik probatzea erabaki nuen».

Naturopata gisa elikadura-osagarriak eta bizi estiloaren aldaketak aholkatzen zituen. Bach loreen tantak ere ematen zituen. «Hurrengo kontsultan, aldaketa sumatzen nien aurpegian eta azalean, eta beraiek ere aunitzez hobeki sentitzen zirela erraten zidaten».

Orduan, Bach loreak gehituta kremak pertsonalizatzea bururatu zitzaion. «Pozarren itzultzen ziren. Kontsulta utzi eta gero ere deitzen jarraitzen zuten kremak eskatzeko. Ordu-tik gaur arte, hamar urte izan dira». Noski, marka eta metodoa aunitz garatu da hasiera horretatik. «Hamar urteotan ikertzen aritu naiz eta puzzlearen piezak elkartzen joan naiz: deskodetzea, neurozientziaren

oinarriak, erresonantzia printzipioaren legea, terapia energetikoa... Cosmética Emocional osatu arte».

Energian oinarritua Liburuan jasota daude kosmetika emozionalaren sustrai sendoak, batez ere energian oinarrituak. «Bizitzan ez da energia kontuan hartzen; materialaren gelditu gara, ez dugu frekuentzietatik, bioenergiatik bizitzeko saltoa eman. Nik honi eskaintzen diot bizitza. Hitzen informazioaren bidez, energiaren bidez, biokimika bat sortzen da, eta gero biokimikak fisika bat eraikitzen du. Oinarritik, ongizateetik eraikitzen da azal osasuntsu bat», adierazi du.

Ohiko kosmetikan, ordea, dena da “anti”: zimurren aurka, adinaren aurka, haurdunaldiko ildasken aurka, zelulitisaren aurka... Ez da pertsonaren ongizatea bilatzen. «Bizi osoan erosi ditugu polit egoteko produktuak inperfektuak garelako sinetsita. Marketin maltzurra da. Gaizki sentiarazten gaitu zerbait erosteko», kritikatu du.

Naturopatiaren printzipioak, aldiz, prebentzioa eta ongizatea dira, bizi osasuntsua eta begirada holistikoa, parterik fisikoenetik espiritua-lenera. Azalaren zaintza hor sartzen da. «Orduan lortuko dut gaztetasuna luzatzea, telomeroak luzatzea, erradikal libreei eta estres oxidatzaileari buelta ematea; koherentziaz, ez borrokatik».

Gilen ustez, kosmetika tradizionala zaharkitua gelditu da. Kosmetika naturala izateak ere ez du erran nahi kosmetika energetikoa denik. Energian oinarritutako kosmetika proposatzen du, kosmetika bi-

zia. «Azala organorik handiena da, gehien sentitzen duena, eta bizirik dagoela aitortzea behar du barnetik berritzeko».

Azala hilabetero berritzen da, baina denborarekin mantsotu egiten da berritze hori; horregatik zahartzen gara. Ohiko kosmetikak berritze hori estimulatu du. «Ongi dago. Noizean behin nik ere parte fisikoa lantzen dut. Baina ez da batere koherentea kolageno tratamenduak egitea eta gure egunerokotasunean etengabe kortisola sortzea, kolagena suntsitzen duena».

Koherentzia Loaren kalitateaz eta koherentziaz mintzo da Gil. Etsipenak eta harmonia faltak pila bat zahartzen duela ohartarazten du. «Informazio hori bioelektrika da, zelulan inpaktatzen du zuzenean, eta kimika sortzen du. Hortik abiatuta kortisola sortuko duzu, adrenalina, endorfinak, oxitoxina... eta horrek lagunduko du zure parte fisikoa eraikitzen. Endorfina sortzen baduzu osasuna eta argitasuna emanen diozu azalari, dopamina sortzen baduzu elastikotasuna, GABA sortzen baduzu kortisolari kontra egiten diozu. Kortisola sortzen baduzu, ordea, odola toxikoz beteko duzu».

Azaldu duenez, horrek bainatzen ditu aurpegiko zelulak, eta, zelulak toxikoz bustita daudenean (elikagaienak eta emozionalak), mudatu egin behar dute inguru horretara egokitzeke eta babesteko. Gehiegizko toxikotasunean hil egingen lirakeke eta zelulak bizirauteko programatuta daude. Egitura aldatzen dute eta egitura aldaketa hori estres oxidatzailearen hasiera da.

GISELLA GIL BUXADE

KOSMETIKA EMOZIONALAREN SORTZAILE ETA BULTZATZAILEA

Gisella Gil Buxadek «Cosmética Emocional» metodoa eta boutique marka sortu zituen 2016an, eta izen bereko liburua kaleratu du orain. Zaintzeko modu berriak esploratzera gonbidatzen gaitu.



Argazkiak: Lidia LADERA - Paulina ALESHKINA

Zelulen ingurua garbi mantendu behar dugula dio, garbi janez eta ongi sentituz. «Janari fisikoa bezain garrantzitsua da emozionala, eta emozionalean galdu egiten gara. Pentsatzen dugu kolagenozko krema batek gazte mantenduko gaituela, baina akatsa da hori, zaintzaren parte nìmiño batean

gelditzen garelako. Barnetik eraiki behar dugu, barnetik ongi lan egin. Nola begiraten diot nire buruari ispiluan? Zer erraten diot? Horrek ere baldintzatuko du azalaren osasuna. Hor lan handia dago egiteko. Gainera, kosmetikaren industriak ez du honen alde eginen, ez duelako saltzen».

Berak emultsionatzailerik, kontserbagarririk eta egonkortzailerik gabe formulatzen ditu kremak. «Dena dator naturatik eta printzipio aktiboetatik. Produktu onak dira, elikatzen dutenak, bi-ziak, energia ematen dutenak. Horrez gain, egunero-koan akonpainatzen dut

IBILBIDEA Gisella Gil Buxade neuropatian aditua da. 25 urteko ibilbidea egin du ongizatea eta osasuna bultzatzen. Lore Terapian, Oligoterapian eta Deskodetze Biologikoan espezializatu zen. Laborategiko teknikari gisa graduatu zen, eta industria farmazeutikoan lan egin zuen hamazazpi urtez. Bertan ulertu zituen sakonki zorroztasun zientifikoa eta produktuen formulazioa. 2016tik «Cosmética Emocional» metodoa eta boutique marka zuzentzen ditu. Azala zaintzeko, alderdi emozionala eta energetikoa, zientzia eta natura batzen ditu. Gaur egun, hitzaldiak, tailerrak eta erretiroak eskaintzen ditu, eta elkarrikeria saio bat ere aurkezten du Bartzelonako Telebistan. «Cosmética emocional» liburua plazaratu du Koan argitaletxearekin.

jendea, behar duen biokimika hori sor dezan», esplikatu du.

Azala eta garuna Azala eta garuna osagai beraz eginak daude biologikoki. Bikote banaezina dira eta mezuak bidaltzen dizkiote elkarri. «Azalean gertatzen den guztia garunean ere gertatzen da eta garunean gertatzen den guztia azalean islatzen da. Konektatuta daude une oro, denerako. Abesti bat aditu eta oilo-ipurdia jartzten zaizunean, hitz bat erran eta lotsagorritzen zarenean... Izugarria iruditzen zait harreman hori ukimenetik harago gauzatzea. Frekuentzia bidezko azalaren etorkizuneko tratamenduaren gakoa da, nire ustez. Azalak ukitu gabe ere erantzuten du. Azalaren hiztegia energia baita, ez materia».

Kosmetikan aditzera ohituta gauden elementu guztiek parterik fisikoenari erantzuten diote, azalekoenari. Baina azalean benetan eragin nahi badugu, bere hizkeran solastatu, zer erraten ari zaigun jakin, frekuentzietara jo behar dugu Gilek aldarrikatu duenez.

Azalaren mezuak Azaleko «arazoak» azalak eman nahi dizkigun mezuak dira, gure barnean gertatzen ari denaren abisuak. Are gehiago, kosmetika emozionalaren sortzailearen arabera, azaleko arazoak ez dira arazoak, hizkera bat baizik. «Erraten ari zaiguna arazo bat balitz bezala tratatzen dugu azala, baina isiltzen duguna oihukatzen du, eztanda egin aitzinetik gure ordezt mintzo da. Gure barnearen eta kanpoaren arteko konexioa da. Gure emozioen ahotsa».

Hagitz barneratuak ditugu gauza batzuk: gorritu bazara, lotsatuta zaude; zuri bazaude, gaizki zaude; izerditan bazau-



de, urduri zaude. Baina rosazea edo akne arrosa baduzu ez dizu inork erraten zure osotasunaren aurkako eraso bat sufritzen ari zarenik.

Rosazea duten emakume aunitzek gauza bat dute amankomunean, kontsultan ikusi duenez: espazioaren galera bat. Eta eraso, sarri, beraiek egiten diote beraien buruari, emozio bero batekin, rosazea beroa baita. Eutsitako amorru indartsu bat dago, ez dakigulako adierazten edo gaizki ikusia dagoela uste dugulako.

Naturopatak agertu duenez, hizkera berri bat da hau. Zientziaren, emozioaren eta edertasun kontzientearen arteko zubi bat. Emozioak, garuna eta azala dira ardatza.

Liburuaren helburua hainbertze urtean landutako informazio hori guztia lurreratzea da. Alderdi zientifikoaren eta dibulgatzailearen arteko oreka bilatu du, adibideak emanez eta zientziarekin kontrastatuz. Dibulgatzen eta paradigma berri hau elikatzen jarraitzea da asmoa, jendearen kontzientzia pizteko, azala zaintzeko bertze leku bat aurkitu dezan.

Izan ere, ohartarazi duenez, «gezurra erosten diogun sektore bakarretakoa» da kosmetika. «Bertze sektore batek gezurra erranen baligu, kontu eske joanen ginateke. Baina inor ez doa krema batekin zera erranez: ‘Hamar egunean zimur gutxiago izanen nituela agindu zenidan eta ez da hala izan’». Horregatik, metodologiaz harago, kosmetika-linea bat sortu nahi izan zuen. «Berezeroek harrituta idazten zidaten: ‘Funtzionatzen du!’ Jaki-na. Konfiantza osoa dudalako sartu naiz honetan».

Azalaren zaintzan posible denaren lurraldera hurbildu baino ez garela egin dio. Esplo-



ratzeko aunitz dago. «Orain hasi gara frekuentzien esparrua ezagutzen eta hor unibertso handi bat zabaltzen da, medikuntzaren paradigma ere erabat alda dezakeena. Baina hor munstro izugarri batekin egiten dugu topo: industria farmazeutikoarekin. Hamazazpi urte eman nituen bertan eta munstro hori ez du inork gelditzen. Ez nago inola ere industria honen kontra. Nire ustez, dena batuz irabazi egiten dugu. Gertatzen dena da, mundu gero eta dualago honetan, doktrinatu egiten gaituztela alde batekoak edo bertzekoak izan

«Bitxia da gaur egungo jendarteak urte osoan produktibo izateko hezi gaituela, naturan ez baitago deus urte osoan zehar fruitua ematen duenik»

gaitezen. Baina ez. Dena da perfektua bere lekuan eta neurrian», egin du gogoeta.

Azalaren egoerak Gisella Gilen arabera, ez dago azal motarik, azalaren egoerak daude. Eta emozionala landuz rosazea, aknea, dermatitisa eta psoriasis senda ditzakezu. Horiek azalaren eritasunak kontsideratzen dira, baina azal lehorra, koipetsua edo aknerako joera duena ez dira gaixotasun bezala hartzen, azal motak direla erraten da. Kosmetika emozionalaren begiradatik, dena berdina da.

«Zure azala joera baten bidez adierazten da, lehortasunaren bidez edo rosazearen bidez, baina, finean, barneko desoreka bat da modu jakin batean agertzeko joera duena, zuk ere kanpo munduko gatazkei era jakin batean aurre egiteko joera duzulako».

Azaldu duenez, zerotik zazpi urtera gure informazioa grabatzen dugu, eta zazpi urtetatik aitzinera, normalki, errepikatatu egiten dugu. «Grabatu duzunaren arabera, zure erantzunak joera bat izanen du zure bizitzan. Beldurra nagusi zen giro batean hazi bazara eta beldurra grabatzen baduzu, bizian gertatuko zaizkizun pasarte guztiak toki horretatik bizitzea izanen da zure joera naturala, betaurreko horiekin ikusten baituzu mundua».

Praktikarako lehen urratsak

Liburuaren azken partean, kosmetika emozionala praktikatzeko lehendabiziko urratsak azaltzen ditu. Azalaren urtaroak oroitarazten ditu, bistakoa baita azala ez dela berdin adierazten udaberrian eta neguan. Esposizioa –haizea, eguzkia, hotza...– aldatu egiten da urtaroaren arabera, eta gure jarrera emozionala ere bai.

Udazkena eta negua dira Gisella Gilek tailerrak egiteko gogokoen dituen urtaroak, sakontzeko garaiak direlako biak, batez ere negua, urak mugitzen dituelako. Pixon-tziarekin eta giltzurruneekin lotuta dago urte sasoi hau.

«Negua sotora jaistea da. Energia hagitz yin da, hagitz sakona. Animaliak hibernatzen ari dira, zuhaitzak hostorik gabe daude, dena geldirik dago. Hortaz, gure buruarekin egoteko momentua da, bildua. Urak, sinbolikoki, emozioak

dira. Emozio sakonak begiratzeko momentua da, beraz. Ametsak, ilusioak, mugitzen gaituen hori bilatzekoa, udaberria iristen denean askatu eta pizkundearen zerbitzura jarri ahal izan dezagun».

Negua zain egoteko garaia da, garbitzekoa. «Bitxia da gaur egungo jendarteak urte osoan produktibo izateko hezi gaituela, naturan ez baitago deus urte osoan zehar fruitua ematen duenik. Denbora osoan produzitu eta fruituak eman behar ditugula sartu digute buruan, baina hori naturaren kontra da. Naturaren zikloetan so-roari atsedean hartzen utzi behar zaio. Bildu egin behar da, moztu, garbitu, berriz erein, eta berriz fruituari itxaron. Guk, aldiz, azala eder izan eta produktibo izan nahi dugu urteko 365 egunetan, emozionalki goian egon egun osoan... Ezinezkoa da, zikloak baitira».

Aholkatu duenez, neguan aunitz zaindu behar dira barneko urak. Salda bero aunitz hartu behar da, kolore iluneko elikagaiak ere bai, eta entsaladak eta hotza ekidin.

«Mundua beldurraren betaurrekoetatik ikusten dugunok kontuan hartu behar dugu neguan beldurrak izugarri handitzen direla eta emozio horiek akonpainatu behar ditugula. Beren espazioa eman, sentitu eta pasatu. Denboran luzatutako beldurrak zahartu egiten gaitu. Ia dena mehatxu gisa ikusiz bizitzea hagitz estresagarria da. Amigdalari konektatuta, kortisola sortzen ari gara egun osoan».

Errezetak Liburuaren amaieran, eguneroko bizitzarako oinarrizko errezeta batzuk ageri dira, urtaroen arabera banatuak. Dietan sartzeko 11 elikagai ere gomendatzen ditu.

«Zure azala joera baten bidez adierazten da, lehortasunaren bidez edo akne arrosaren bidez, baina, finean, barneko desoreka bat da modu jakin batera agertzeko joera duena, zuk ere kanpo munduko gatazkei era jakin batera aurre egiteko joera duzulako»

Gogoeta batekin bukatzen du: «Eritasuna, azalarena edo bertze edozein organorena, dimentsio osoan –fisikoa, mentala, espirituala, emozionala– zuzenki proportzionala da bizitzara konektatzen zaitueneren eta zure egiazko bizitzaren arteko distantziarekiko. Zure zentrotik zenbat eta urrunago bizi, gaixotasunak garatzeko joera handiagoa izanen duzu. Aldiz, zarena aitortu eta onartzen duzunean, zure izatearen alde guztiak sartuz, bizitza isuri eta arima zabaltzen da».

Aunitz inspiratu du Max Gerson doktoreak. Hark printzipio sinple bat aipatzen du, bizitzaren arlo guztietan aplikatzen ahal dena: «Bi motibo soilik daude gaixotzeko: falta

eta intoxikazioa». Liburua ixteko borobila iruditu zitzaion.

Liburua gida bat izatea da asmoa, kontsultatzeko, errezetak egiteko, inspiratzeko. «Egiazki bizitzeko gonbidapen bat da. Egierako gonbidapen bat. Garrantzitsua da nola bizi garen: kontua ez da zer gertatzen den, nola bizitzen dugun baizik. Ez dago emozio negatiborik eta positiborik. Sentitzeko dira, baina ito egiten ditugu. Nondik zaintzen gara? Zahartzeko beldurretik egiten badugu, eta hori ikusi nuen nigan, gelditu eta beldur horri kasu egin behar diogu, gainontzeko guztiarekin tapatu baino lehen. Tailerretan beti lantzen dugu hori: nondik. Gakoa da hori denerako».

Gauza bat aitortu digu: proiektu honen erdialdean, nahi ez zuen leku batera zihola ohartu zen. «2022 bukaeran gelditu egin nintzen. Konturatu nintzen nire zauriari erantzuten ari nintzela markarekin; ikusia eta aitortua izateko nire zauriari. Nire burua suntsitzen ari nintzen maitasun eskean. Gauza bat da zauritik bizitzea eta bertze bat esentziatik. Hagitz ongi ezberdintzen hasi naiz bizitzan zerbait bertzei gustatzeko egiten dudan ala esentziatik egiten dudan. Gorputzak markatzen dit. Gorputza uzkuratzen bada, zauria ari da lanean. Gorputza kontent badago, lasai, esentziatik ari naiz. Gozamina sartzen da hor», adierazi du.





Josu OZAITA Antropologoa

Merke eta xuhur

Traktoreek errepideak hartu dituzte beste behin; maizegi azkenaldian. Bakarrik egin dute protesta nekazari-iek, isolaturik baleude bezala. Eta, batzuetan, gehiegitan, gizartea baserritarrei begira geratu da, desagertze arriskuan dagoen espezieia balira bezala.

Europar Batasunaren eta Mercosurren arteko akordioa ixten ari dira Europa eta Hego Amerika-ko zenbait herrialde (Argentina, Brasil, Paraguai eta Uruguai). Batzuentzat, «aukera ekonomikoa» da; historikoa. Beste batzuentzat, «Europako nekazaritzaren heriotza». Akordio horren helburu nagusia muga-zergak kentzea eta bi blokeen arteko ondasunen eta zerbitzuen trukea erraztea da. Paperean, itunak bidea ematen die Hego Amerikako produktuei –hala nola haragiari, azukreari eta arrozari– Europar kuota mugatuen bidez sartzeko, muga-zerga txikiekin edo batere gabe. Trukean, Europako produktuek –industria-ondasunek, teknologiak eta zerbitzuek– Latinoamerikako merkaturarako sarbide lehenetsia lortuko lukete.

Itunak mesfidantza handia eragin du Europako lehen sektorean. Euskal Herriko nekazari eta abeltzainekin batera, Europa guztikoak dira kexu, bereziki frantziarrak eta alemaniarrek. Eta arrazoi dute: Hego Amerikako ekoizpen kostu baxuek europar nekazari-iek lehiakortasuna galtzea eragiten dute. Kezka eta protesta ez dira soilik arrazoi ekonomiko-koen ondorio; arrazoi etikoak eta ingurumenarekin lotutakoak ere badira tartean.

ZENTZU ONAREN AURKA

Elikadura negozio huts moduan ikusten da: dirutan soilik neurtzen da. Edo bestelako negozioak lehene- tsi dira baserritarrak sakrifikatuz. Politikari-iek men egiten diete elikadura soilik diru bezala ikusten du- ten inbertsio funts kapitalistei. Ondorioz, 9.000 ki- lometro egingo ditu etxe askotako mahaietan egon- go den xerrak. Nola bizi dira animalia horiek?

{gastronomiaren antropologia}

Zenbat pestizida eta produktu toxiko erabili dira hainbeste kilometro egiten dituen jakia errentagarri izateko? He- mengo osasun ikuskapenak pasako al lituzkete produktu horiek? Europako legeak betetzen ez dituzten elikagaiak gurera ekartzea tranpa da, baita gure hankari tiro egitea ere. Nola eskatu he- mengo baserritar bati “x” lege betetze- ko, gero kanpotik lege horiek betetzen ez dituzten jakiak ekarrita?

Hemengo ganadugintza, oro har, ja- sangarria dela esan dezakegu. Gure mendietan bizi diren animaliek ingu- ruotako paisaia zaintzen dute, bidena- bar kalitate handiko elikagaiak sortuz. Bertatik bizi dira gure bizilagunak, he- rritarrak, eta gustura dastatzen ditugu euren lanaren emaitzak.

Mercosurrekin lortutako akordioa beste kolpe bat da Euskal Herriarentzat. Baserriko bizimodura aurrerapausoa emateko zalantzan zeuden gazteek atzera egingo dute, edo enpresetan cu- rriculumak botatzen hasiko dira. Ia etsita zeuden adineko baserritarrek

arrazoia zutela esango dute, eta hala ze- la onartzea besterik ez zaigu geratuko.

GERTUKOTIK HASITA

Europako Parlamentua da erabaki gu- nea, urrun geratzen zaigu; ia ez dago gure esku. Baina hemengo parlamen- tuetan eta udalbatzetan ere, gaiari ema- ten zaion lehentasuna ikusita, ez gaude su artifizialak botatzeko moduan. Beti- ko leloaren betiko leloa da Euskal He- rria herri industrial dela. Bai, hala izango gara, baina baita beste gauza as- ko ere. Herri txiki asko ere bagara, eta bertan bestelako bizimodu, ikuspegi eta ogibideak dituzten ehunka pertso- na eta proiektu bizi dira. Sakabanatuta askotan, eta, egiari zor, indar zein ga- rrantzi hori erakusteko bitarteko asko- rik gabe. Hori bai, egunen batean, gure buruari ikusarazi beharko diogu torlo- juak ezin direla jan, egunean hiru aldiz jaten ditugula elikagaiak!

“Aberatsa” hitza abere multzoa izate- tik dator: abere asko izatea zen abera- tsa izatea. Gaur, ordea, Euskal Herriak



Ursula Von der Leyen, Brasilgo agintariekin, EBren eta Mercosurren arteko akordioaz hitz egiteko bileran. Tania REGO | EUROPA PRESS

aberatsa izateari utzi dio, gero eta pobreagoa da herri bezala. Jaten dugunaren zenbat sortzen dugu hemen?

Behin, Andres Etxeberria artzainak hausnarketa hau oparitu zidan: «Hargia hemendik hara, eta handik honantz ekarri. Esnea eraman eta merkeagoa ekarri. Nik politikan dabiltzanak ez dakit nola ikusten duten, baina, hemen produzitzeko gaitasuna galtzen badugu, mendeko bilakatuko gara: nahi eta nahi ez, beste toki batetik erosi behar. Arazo ikaragarria da hori. Zer egingo dugu estatuen arteko krisi bat etortzen bada? Edo gerra bat? Edo beste pandemia bat? Zer jango dugu?». 84 urteko esperientziatik, kontuan hartzeko hitzak ardiekin eta gaztarekin bizimodua atera duen baten ahotik.

Alderdien gainetik, herria jarri behar dute politikariek gai honetan, etorkizuna eraikitzen hasteko moduko elikaduraren inguruko akordio indartsua. Europa urrun dago, baina gertu Eusko Jaurlaritza, gobernuak, departamentuak, udalak.... Bertatik gauza asko egin daitezke, eta ez dago alderdirik bere lehentasunen artean gai hau duenik. Ez dago estrategia nabarmenik; partxe asko, bai. Alderdiak baino, bertako pertsona jakin batzuk ari dira auzi honetan lanean, ia bakarrik. EAJri eta EH Bilduri gaia lehen lerrora ekartzeko eskatu behar zaie. Hitz egin behar da jantoki publikoez (ospitale, eskola eta beste), egunero ematen dituzten milaka eta milaka otorduez. Hori dena bertako produktuekin kozinatuko balitz, herri txikietako bizi baldintza eta jarduerak aldatu eta hobetuko lirатеke, paisaiak aldatu, baserriak berpiztu. Eta, bide batez, hainbat sakoneko gai ere hobetuko lirатеke. Estrategia bat behar da, etorkizuneko Euskal Herria irudikatuko duena, arnas luze eta begirada sakonetik. Ez, noski, lau urteko perspektibatik. Andresek esaten duen bezala, independentzia eskatzen dugu, baina ez da inoiz erabatekoa izango jatekoa kanpotik ekartzen badugu.

HERRIA HERRITIK

Dependentzia normalizatzen ari gara, etxe askotan “merke eta xuhur” para-



Nekazari eta abeltzainen protesta, Gipuzkoa eta Lapurdi arteko mugan. Andoni CANELLADA | FOKU

metroa beste guztiaren gainetik jartzen elikadurari dagokionez. Jada, kua-drilletan Mercadonako tortillaren apologia egiten den garaietan bizi gara. Elikadura arloan ere irizpide etiko eta politiko gabe erosteko ohitura sortzen ari da, salbuespenak salbuespen. Badi-rudi janaritan aurreztu behar dela, bestelako bizioen onuran. Argaia Goena baserriko Aintzane Garmendiak Instagram kontuan egin du hausnarketa: «Egoera honen aurrean, bertatik egin behar dugu, gure esku dagoenetik. He-

Mercosurrekin lortutako akordioa beste kolpe bat da Euskal Herriarentzat. Egunen batean gure buruari ikusarazi beharko diogu torlojuak ezin direla jan, eta egunean hiru aldiz jaten dugula

Estrategia bat behar dugu etorkizuneko Euskal Herria irudikatuko duena, arnas luze eta begirada sakonetik. Ez, noski, lau urteko perspektibatik

rria herritik eraikitzen da, herriak soilik salba dezake herria». Norabide horretan, herritarrei dei egin die bertako produktuak kontsumitzeko. Nabarmendu du horrek sekulako garrantzia duela baserriarentzat, baina baita erosleen osasunarentzat ere.

Dena ez da Europa, edo Mercosur. Gure esku ere badago erosketak bakoitza kontzienteki egitea: zer erosten dugun aztertzea, erositakoa non ekoitzi den, zein baldintzatan, nor dagoen atzean... Botoa ematea garrantzitsua izango da, baina egunero hiru aldiz jaten dugu. Botoa lau urtez behin ematen da, baina erosketak ia egunero egiten ditugu.

MERKE ETA XUHUR

Gure bizilagunak, gure herritarrak, gure baserriarrak, gure elikaduraren zentroan jartzeko ordua iritsi da. Jakoba Errekondok esaten duen bezala, «jatekoan aurretzen dena, ospitaleetan gastatzen da gero». Merke eta xuhur pentsatu eta jokatzetik haratago, bada garaia herritik pentsatzeko.

Horrenbestez, aukera ere bada Mercosurrekin egindako ituna Euskal Herriarentzat; behingoagatik, akordio zabal eta praktikoa lortzeko, akuilu izateko elikadura burujabetzaren bidean, eskuzabaltasun eta aberastasunetik. Herritik herriarentzat.



Depresioa da b u r u k o nahasmendu ohikoenetako bat, eta bere intzidentzia %50 inguru hazi zen 1990 eta 2017 artean, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera: munduko biztanleriaren %5 ingururi eragiten dio. Katalunian, diagnostiko hori duten pertsonen kopuruak ere nabarmen egin du gora azken urteetan: 2017tik 2022ra bitartean, depresioaren eta gogo-aldartearen nahasmenen intzidentzia %86,6 hazi zen, Kataluniako osasun-sistema publikoko lehen mailako arretaren datuen arabera.

Frogatuta dago nahasmenen du horren tratamenduan teknologia berriak erabiltzeak, aplikazio mugikorrak aurrez aurreko esku-hartze psikologikoekin konbinatzeak, eraginkortasun handia izan dezakeela, eta osasun-sistemek duten asistentzia-karga handia arin-

EVALDEPAPPS

Depresioaren tratamendurako aplikazio mugikorrak ebaluatzeneko tresna

 **OSASUNA /** UOC

Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) eHealth Lab ikerketa-taldeak depresioa tratatzeko aplikazio mugikorrak ebaluatuko dituen irtenbide digital bat garatu du, EvalDepApps izenekoa. Depresio kasuek nabarmen egin dute gora azken urteotan, eta tratamenduan aplikazio teknologikoak erabiltzea ohikoa bilakatu da.

tzen duela. Baina benetako erronka aplikazio mugikor horien kalitatea ziurtatzea da; izan ere, kasu gehienetan, ez dira ebidentzia zientifikoan oinarritzen, eta ez dute pazienteak tratatzeko orduan eraginkortasuna bermatzen.

Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) eHealth Lab ikerketa-taldeak azterlan bat

egin du depresioa tratatzeko aplikazioak erabiltzean pazienteentzat garrantzitsuenak diren irizpideak identifikatzeko. Ikerketa horren azken helburua irtenbide digital bat garatzea da, EvalDepApps izenekoa, osasun-arazo honen jarraipenerako aplikazioak ebaluatzeneko eta, horrela, kalte-tutako pertsonen eta osasun-

profesionalei tratamendurako egokienak hautatzen laguntzeko. “Validation and selection of criteria for evaluating apps for managing depression: a Delphi study” azterlana “British Medical Journal” aldizkarian argitaratu da eta I+G+Bko Estatuko Planaren finantzaketa jaso du.

«Sendagai edo osasun-produktu bat merkatura iritsi aurretik ebaluatzen den bezala, haren eraginkortasuna eta segurtasuna ziurtatzeko, gure osasuna eta ongizatea zaintzeko erabiltzen ditugun aplikazio mugikorrak ere ebaluatu behar dira, zer eragin izan dezaketen jakiteko, baina gaur egun ez da behar adina egiten. Herritarren osasunean eragin potentziala duten aplikazioak dira, eta, kasu batzuetan, kaltegarriak ere izan daitezke», azaldu du Carme Carrion proiektuko buruak.

EvalDepApps proiektuaren helburua depresioa tratatzeko aplikazioak baliozkotzeko eta ebaluatzeneko tresna bat garatzea da, ebidentzia zientifikoan oinarritua eta depresioa duten pazienteen beharrei erantzutzea. Tresna hori ere aplikazio mugikor bat izango da, eta jarraibide argiak emango dizkie erabiltzaileei depresioa tratatzeko beren beharretara eta gustuetara egokitzen den aplikazio bat aukeratzeko moduari buruz.

IRIZPIDE GARRANTZITSUENAK

Proiektua aurrera eramateko, ikerketa-taldeak depresioa jorratzen duten aplikazio mugikorrak mapatu zituen, eta 30 inguru aztertu. Horietatik zortzi baino ez ziren argitaratutako ebidentzia zientifikoan oinarritzen. Erabiltzaileentzako irizpiderik garrantzitsuenak jasotzeko, 43 pertsona inplika-

Depresio kasuak asko hazi dira azken urteotan eta osasun erakundeak kezkatuta dabilta.
GETTY IMAGES

tu ziren Delphi prozesu batean, adituek gai bati ematen dioten garrantzia ebaluatzeko metodo prospektiboa.

Aplikazio bat aukeratzeko orduan, erabiltzaileek lehentasunezko irizpide hauek baloratu zituzten: datuen segurtasuna, eraginkortasun klinikoa, ebidentzian oinarritua egotea, eta, alderdi teknikoan, intuitiboa eta erabiltzeko erraza izatea. Positiboki baloratu zen, halaber, aplikazioak osasun mentaleko edo osasun-sistemako profesionalakiko interakzioa edo premiazko kontak-tua ahalbidetzea, eta multzo terapeutiko baten parte izatea, hau da, ez erabiltzea modu isolatuan eta osasun-profesionalen laguntzarik gabe.

Carrionen ustez, funtsezkoa da aplikazioaren lehentasunezko funtzioa zein den zehaztea: «Puntu hori funtsezkoa da, bestela, aplikazio baten barruan gauza gehiegi jarri nahi izaten baitira, eta, beraz, ezin da erabili. 'Gutxiago gehiago da' esaera oso egokia da hemen», nabarmendu du ikertzaileak. Depresioaren tratamendurako aplikazioek planteatzen duten erronkarik sentikorretenako bat pribatasuna da. Horixe izan da depresioa duten pertsonen eta ikerketan parte hartu duten osasun-profesionalen garrantzi handiena eman dioten alderdietako bat. «Funtsezkoa da aplikazio bakoitza zein kolektibori zuzenduta dagoen kontuan izatea, eta, batez ere, pribatasuna bermatzea», azaldu du Carrionek.

Erabiltzaileek nabarmendu zuten beste puntu bat da aplikazio mugikorrak pazientearen bilakaera klinikoa neurtu ahal izatea. Noemi Robles Research Methods & Data Science Labeko kidea eta EvalDepApps

proiektuko ikertzailea da. Azaldu duenez, berezitasun horrek «pertsonari bere egoera emozionalaz gehiago jabetzen eta jarraipen pertsonalizatuagoa egiten lagun diezaioke, informazio hori artatzen duten profesionalekin partekatzen bada. Oso informazio baliotsua izan liteke, batez ere aplikazioek gogo-aldartean edo arrisku-egoretan aldaketak detektatzeko gaitasuna izango balute, erabiltzaileari aparteko laguntza eskaini ahal izateko».

Ikerketan sortutako beste ideia garrantzitsu bat aplikazio mugikorrak depresioaren tratamenduan genero-ikuspegia kontuan hartzea izan zen, gizonen eta emakumeen sintomatologia desberdina izaten baitute. Adibidez, emakumeen erru sentimendu gehiago dituzte, tristura handiagoa, eta, gizonen, berriz, suminkortasun handiagoz adierazten du-

Ikerketa-taldeak depresioa jorratzen duten aplikazio mugikorrak mapatu zituen, eta 30 inguru aztertu. Horietatik zortzi baino ez ziren ebidentzia zientifikoan oinarritzen

Aplikazioek depresioaren tratamenduan genero-ikuspegia kontuan hartu behar dute, gizonen eta emakumeen sintomatologia desberdina izaten baitute

Aplikazio mugikorrak gero eta gehiago erabiltzen dira osasun tratamenduetan.
GETTY IMAGES

te depresioa. Hori kontuan hartzea gako da diagnosi eta tratamendu okerra saihesteko.

PERTSONAK PROTAGONISTA

Ikerketa-taldeak azpimarrazten duen puntuetako bat azken erabiltzaileek aplikazioen garapenean izan behar duten rol protagonista da, sortze-prozesuaren hasieratik amaierara arte: «Erabiltzaileen iritzia kontuan hartzen ikasi behar da, eta ulertu behar da

prozesua ez dela amaitzen erabiltzaileek aplikazioa baliozko-tu arte. Batzuetan, kogenezioa gorabehera, paperean baliozkoa dirudienak praktikan ez du funtzionatzen. Beraz, garrantzitsua da garatzaile taldeak kontuan izatea aldaketak egon daitezkeela lehen testaren ondoren», azaldu du Carme Carrionek, UOCeko Osasun Zientzien irakaslea ere badenak.

EvalDepApps proiektuaren hurrengo urratsa parte-hartzaileak biltzea da, erabiltzaileek tresna hori probatzeko aukera izango duten proba pilotu bat egiteko. Baliozko ondoren, depresioa duten pertsonen aplikazio mugikorrak bat izango dute, jarritako plan terapeutikoan lagunduko dien teknologia egoki bat hautatzeko. Printzipioz ikerketa teknologia garatzaileentzat pentsatua ez badago ere, ikertzaileek azaldu dute baliagarria izan daitekeela pazienteek kontuan hartzen dituzten alderdi garrantzitsuenak zein diren jakiteko eta aplikazioaren diseinuan txertatzeko.

UOCeko eHealth Centre osasunaren eta teknologia berrien esparruko beste proiektu batzuetan ere ari da lanean gaur egun, hala nola onkologiako profesionalentzako gaitasun digitalak hobetzen; bularreko minbizia izan duten pertsonentzako esku-hartze digitala garatzen; emakumeentzako esku-hartze digitala diseinatzen menopausiaren aurreko etapan; eta Osasunaren Mundu Erakundearen aplikazio mugikorrak ebaluatzen, adimen artifiziala barne hartzen duena, larruazaleko gaixotasunen diagnostikoan lehen mailako arretan lan egiten duten profesionalen lagundu ahal izateko.





Izaro GOIENETXEA eta Itsaso RODRIGUEZ

Donostiako EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzaileak

Adimen artifiziala arrantzan

Arraina oinarritzko elikagaia da gizateriaren-tzat, eta ondorioz arrantzak ekonomian bere-biziko garrantzia dauka. Europa mailan 50.000 ontzi baino gehiago dira arrantzan dihardutenak, eta horrek hainbat erronka planteatzen ditu gehiegizko arrantzaren eta itsasoko baliabideen kudeaketaren inguruan. Testuinguru horretan, ahalegin handiak egiten ari dira arrantza hori ja-sangarria izan dadin itsasoa eta bere ekosistemak osasun-tsu mantentzeko.

Itsas baliabideen ustiaketa egokia egiteko, gehiegizko eta legez kanpoko arrantza ekidin nahi dira, eta baita babestuta dauden espezieena ere. Bestalde, itsasontziek arraina bila-tzen dihardutenean erabiltzen duten erregai kantitatea jais-tea ere desiragarria litzateke, bai galera ekonomiko gutxia-go edukitzeko, bai eta berotegi-efektuko gasen isuria jaisteko ere.

Gauzak horrela, “adimen artifiziala” kontzeptua hain mo-dan dagoen garai hauetan, nola lagun dezake adimen artifi-zialak arrantzaren jasangarritasuna hobetzen?

Helburu horiek lortzeko ikasketa automatiko eta adimen artifiziala erabiltzen duten hainbat aplikazio ari dira gara-tzen. Adibidez, espezie jakin bat harrapatu nahi duen ontzi batek espezie hori probabilitate handi xamar batekin zer zonatan egongo den aurreikusteko gai izango liratekeen ereduak sortzeko metodologiak garatzen ari dira. Horrelako sistemek arrantzaleei bila-ketan denbora asko aurrez-tea ahalbidetuko liekete, eta are garrantzitsuagoak izango lirateke egungo al-daketa klimatikoko testuin-guruan, arrainen habitat edo bizilekuak nola alda-tzen diren ikasteko.

Ikasketa-eredu horiek ga-ratzeko espezie jakin bate-ko aleak non ikusi edo ha-rrapatu diren bildu behar da. Eremu horietako ingu-rumen-baldintzak deskri-batzen dituzten datuak lor-tzen dira gero; uraren tenperaturari buruzkoak, oxigenoari buruzkoak... Zertarako? Sistemak espe-zie horren bizilekua nola-

koa den “ikas” dezan. Datu nahikoa izanik modelo bat sortu ahalko litzateke, itsasoan neurtzen diren aldagaien arabera espezie horretako arrainak egoteko probabilitatea aurreiku-siko lukeena.

Metodo horiek, arrantzarako gomendio izateaz gain, babes-tutako espezieen presentzia aurreikusteko erabil daitezke, aurretik non ikusi diren jakiteko eta toki horietako inguru-men-baldintzak ikasten dituen modelo bat eraikitzeko. Oso lagungarriak izango lirateke itsasontziek babestutako espe-zie horiek ekiditeko.

Ikasketa automatikoko metodoez gain, beste hainbat tek-nologia erabiltzen dira arrantzan. Horien adibide dira itsa-sontzietan instalatutako kameretako irudien gainean apli-katzen diren ikusmen automatikoko metodoak, arrantzatzen diren espezieak eta beraien tamainak automa-tikoki sailkatzeko. Baita urpeko mikrofono edo hidrofonoek antzemandako datuak tratatzeko erabiltzen diren akustikan oinarritutako metodoak ere, espezie desberdinek egiten di-tuzten soinuak prozesatuz, espezieak identifikatzeko erabil daitezkeenak, era ez-inbaditzailean.

Ikusi den moduan, adimen artifizialeko hainbat aplikazio ari dira garatzen arrantzaren jasangarritasunera bideratuak, eta teknologiaren aurrerapenarekin are gehiago garatzea espero dugu, arrantzaleei eta orokorrean itsasoari laguntze-ko baliagarriak izango direnak. •



Arrantza jarduera ekonomiko garrantzitsua da. Andoni CANELLADA | FOKU

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



EGILE EZEZAGUNA. BAIONAKO MEDIATEKA

MENDIKOTAKO 1921EKO MASKARADA

Euskal Herriko inauteri garrantzitsuenetako bat Zuberoako maskarada da, normalean urtariletik martxora bitartean ospatzen dena. Urtero, Zuberoako herri bateko gazteak arduratzen dira antzezenak antolatzeaz, eta igandero inguruko herrietan zehar ibiltzen dira. Maskarada bi zatitan egituratzen da: goizean egiten den barrikada eta arratsaldean egiten den ofizioa. Parte-hartzaileak sinbolikoki kontrajarritako bi taldetan banatzen dira: gorriak eta beltzak. Lehenengoen ordena, diziplina eta dantza iruditzen dituzte; bigarrenen kaosa, iseka eta kritika soziala. Bi taldeen arteko borroka sinbolikoa gorriek beltzen aurka lortutako garaipenarekin amaitzen da beti, horrela ordenaren berrezarpena antzektuz. Goian ageri den argazkia 1921ean Mendikotan egindako maskaradan ateratakoa da.

Adimen Artifizial Generatiboa

ARRISKUAK · ERRONKAK · AUKERAK

IA generatiboak dakartzan arrisku, erronka eta aukerek tresnak garatzea eta euskal gizarteak eta gure kulturak bizirik irauteko eta garatzeko dituzten baliabideak indartzea eskatzen dute. Fenomeno globala da, baina gure herritarrei zuzenean eragingo die. Printzipio argi eta zintzoekin, teknologia disruptibo honek eskaintzen dituen aukerak baliatu nahi ditugu; aldaketa handiak ekarriko ditu derrigorrez, eta, horregatik, giza balioetan eta interesetan oinarrituta lagundu eta gidatu behar da.

Kazetaritzatik, gure konpromisoa da desinformazioari aurre egitea, trappak agerian uztea eta bidegabekeriak salatzea, bereziki kalteberak diren kolektiboetara arreta berezia eskainiz: gazteak, adinekoak, emakumeak eta LGBTBI pertsonak, sarritan generoarekin lotutako gezurren, indarkeria matxistaren ukapenaren edo diskurtso homofoboaren jomugan baitaude. Guzti hori, ikuspegi humano eta euskal ikuspegitik, gure gizartearen informazio-manipulaziotik babesteko eta pertsona guztien eskubideak eta duintasuna defendatzeko borondate irmoarekin.



Sartu kanalera



GARA

